

TOKIKOM

2018ko abendua | 187. zenbakia

ailkor!

txorierriko aldizkaria

Horra, Mari
Domingi



Zuri esker gara izar

Abenduaren 26an
Arrastiko 7etan
Kultur Birikan

Derioko
Merkataritzaren
Gabon
Ekitaldia

Bale Zozketa • Opari Zozketak • Artisten Saiokak
ERDI!!!

-  **4** Eritxiak
-  **6** Laburrak eta albisteak
-  **9** Irudietan... Mertxe Peula eta Juan Ramos
-  **10** Gurean izan da... Igor Anton, txirrindulari ohia
-  **12** Gaztea eta... Leticia Hidalgo, ekintzailea
-  **14** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **16** Basoen kudeaketa
-  **18** Babestutako edukia... BC Gym
-  **18** Gabonak
-  **26** Euskara ari du
-  **30** Elkarreak... Gela pedagogikoa
-  **32** Teknologia... Genoman dago koska
-  **33** Aikorrizketa... Gabon zaharra eta eskola
-  **34** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa



10 Igor Anton txirrindulari ohia



26 Euskara ari du



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



diruz lagundutako aldizkaria

aikor!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

Kolaboratzaileak: Asier Oruetxebarria, Izarne Agirre, Loiu Argazkilaritza ikastaroko ikasleak, Idoia Andres, Jon Goikouria Larrabeiti, Itallen bertso eskola, Gaizka Peñafiel eta Jose Angel Mentxaka

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322



Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.

Gaztainak

Domakako arratsalde euritsu hone-tan, aste barruan erositako gaztainak zartagin zahar baten erretzea erabagi dot. Aurten lehenengoz jango dodaz; bero-beroak, goxo-goxoak. Egunen baten taloa be egingo dot. Holango jakiak gustukoak daukadaz. Gaur egun hain modan dagoen *slow food* terminoaren familia-koak dirala uste dot. Denpora larregi behar dabe egunero jateko, baina niri noizbehinka jatea gustetan jat. Gainera, estresaren kontrakoak dirala uste dot. Bai, estresaren kontrakoak. Gaztainak jateko denporea behar da; ezin dira arin baten jan. Zuritu behar dira, ez erretako lasai jan behar dira, eta, onena: lagunen bategaz alkarbanatzen badira, askoz hobeto. Jaten diran bitartean sortzen dan elkarriketea lagungarria da digestinorako. Baieztapen honegaz, beharbada, medikuak ez dira nigaz ados egongo, baina ni ziur nago holan dana. Ardaugaz bardin gertatzen da. Botila bat ardau edan beharrean, erdia edo herena

edan ezkerro, baten bategaz banatu dalako, bada gitxienez onura bi daukaz: lehenengo, edatean sortzen dan elkarriketea; eta bigarrena gitxiago edate horregaz dator.

Globalizazio gastronomiko honetan, lekutxo bat topatu behar dautsegu etxean egindako gaztainak moduko jakiei. Seguruenik, alperkeria izango da jaki hau ez jatearen erruduna. Baina gaztainek badaukie berezitasun bat: nik dakidala, oraindik ez da existitzen mikrouhin labeen sartzeko erdi egindako gaztainarik (holango taloak badagoz). Agian, negozio baterako ideia izan daiteke.

Azkenean, gaztainak, taloa edo morokila izatea bardin da. Garrantzitsuenak mahaiaren inguruan sortzen dan elkarriketa da, bazkaltzen dan bitartean eta bazkaldu ostean. Orain dala gitxi, aspaldiko lagun talde bat lotu ginen bazkaltzeko. Jatetxea aukeratu genduan, eta erreserba egiteko orduan ea zein ordutan gura genduan galdetu euskuen. Guk hirurak inguruan esan geuntson, eta telefonoaren beste aldeko morroiak ezetz esan euskun. Ordu bat eta erdietan edo hiru eta erdie-



ASIER ORUETXEBARRIA
Irakaslea

tan; ez egoala beste aukerarik. Lehenengo txandea ala bigarren txandea aukeratu behar genduala. Ez dakit turisten eragina izango dan, edo tabernariaren irabazi nahia. Baina non geratzen da bazkalosteko egiteko denporea, lehenengo txandea aukeratu ezkerro? Guk bigarrena aukeratu genduan, eta jantokia hutsitu arte egon ginen han, estresaren kontrako errezetari jarraitzen, berbetan lagunakaz. Ea gaztainak hotzitu baino lehen topetan dodan lagunen bat, bion artean jateko. Txipli txapla pun!

Umeak haserretzen direnean berba egitearen indarra goraipatzen dugu helduok. Geu ere haserretzen gara, eta, orduan ere, elkarbizitzaren izenean, mahai bueltan konpontzearen aldeko hautua onena dela sinistarazten digute. Baina negoziatioak eta mahai bueltak hutsak dira haserrea eta ezinikusia gizarte osoaren arazo bihurtzen direnean. Egungo panoraman tendentzia politiko faxista eta ankerrek gorrotoa pizten dute, elkarbizitza, bake eta hitz polit guztiei ostikada emanez. Hitzak hesi bihurtzen dira; askatasuna, preso.

Nola ulertu, bestela, XXI. mendean oraindik ere harresiak eraikitzea? Nola azaldu ume bati Mexiko-AEBetan trabatutakoen egoera? Mila kilometrotik gorako

Hesiak eta haziak



IZARNE AGIRRE
Irakaslea

harresia; Europara atea zarratzen duten Ceuta, Melilla, Kroazia, Eslovenia, Bulgariako mugak; herri ez direla gogorarazi nahi dien Sahara eta Palestinarrei ezarritako harresiak; Kurduak zatitzen dituen, Turkia eta Siriakoa...

Azalpena izan daiteke herri eta pertsonen askatasunari gorrotoa/ beldurra? Ez al ginen, bada, mahai bueltan eseri behar, sentimenduak kudeatu, hitz egin... elkarbizitzaren izenean?

Gorrotoaren haziak eraiki dituzte harresiak, hesiak; eta guk loratu eta kolorea emango duten landareen haziak behar ditugu.

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
Tel: 94 602 75 25-6

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Unbe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

-Especialitate guztiak
zentro bakar batean
-Aurrikuntza doan
-Especialitatea:
umeak

Lekue, pozik txapelketarekin eta Enbeitaren garaipenarekin



Abenduaren 15ean, Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren finala izan zen Bilbao Arenan, eta txapela Onintza Enbeitak eraman zuen. Enbeitak Bizkaiko txapelketa irabazi duen lehen emakumea izan da, eta txapela bere osabak, Jon Enbeitak, ipini zion. Buruz-burukoa Etxahun Lekue larrabetzuarrarekin jokatu zuen.

Lekueren esanetan, finala gorabeheratsua izan da, baina polita eta atsegina

ere bai, "eta denon aldetik zer edo zer ona geratu da". Larrabetzuarra gustura egon da txapelketan zehar, bereziki Lekeitioko finalaurrekoan, eta aitortu du finalean nahiko gorabehera handiekin ibili dela. "Aurten, beharbada, umoretik asmatu dut gehien, bai zortziko txikiko ariketetan, bai lehenengo fasean zein buruz-burukoan Mari Domingirekin. Baita Lekeitioko saioan ere. Bestetik, normalean egiten ez ditudan akats asko egin ditut, baina, beno, horren inguruan hausnartu dut eta gaitortu dut dagoeneko. Orokorrean, pozik nago egin dudanarekin eta Onintzaren garaipenarekin, lagun handiak garelako". Lekue eta Enbeitak umetatik ezagutzen dute elkar eta askotan izan dira elkarrekin eskola arteko txapelketetan, bertso barnetegietan eta hainbat saiotan. "Inoiz buruz-burukoa berak eta biok jokatu beharko genuela esan dit hamaika aldiz, eta aurten izan da. Askok poztu naiz berarengatik".

Enbeitak eta Lekuearekin batera, bertsolari hauek ailegatu ziren finalera: Xabat Gallettebeitia, Jone Uria, Nerea Ibarzabal, Miren Amuriza, Eneko Abasolo *Abarkas* eta Aitor Bizkarra. Bilbao Arenan 4.350 bertsozale batu ziren, giro ezin hobean.

Azkenik, Lekuek Malen Amenabar larrabetzuarrak txapelketan egindako lana ere nabarmendu du. "Oso txapelketa ona

Gym Berdeak ikasturte berriari ekingo dio

Egitasmoak osasuna, zahartzeko aktiboa, gizarteratzea eta lorezaintza ekologikoa uztartzen ditu, eta urtariletik azarora bitartean egingo da Zamudio; eta otsailetik azarora bitartean, Larrabetzun.

Gym Berdea urtarilaren 14an, 20:00etan, aurkeztuko dute Zamudiotarren, eta lehenengo saioa urtarilaren 22an, 17:00etan, izango da Zamudiotorreko lorategian. Larrabetzun, urtarilaren 30ean egingo dute egitasmoaren aurkezpena, 19:30ean, Anguleri kultur etxean. Lehenengo saioa otsailaren 6an, 17:00etan, izango da presa ondoko lorategian.

Kasu bietan, ordu bi eta erdiko saioa egingo da astero. Informazio gehiago eskuratzeko edo izena emateko, 699 73 98 51 telefono zenbakira dei daiteke. Era berean, Anguleri kultur etxera (Larrabetzu) edo Zamudiotorrera joan (Zamudio) daiteke. Gym Berdea proiektu berri-tzailea da Estatuan, eta Larrabetzun 2016an egin zen lehen aldiz.



ELORRIETA
INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Uribe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

MARMOLGINTZA
GOYO
SUKALDE-GAINEKOAK OBRAK HILERRIAK
Ugaldeguren 1 ind. 18-B nabea
48160 Derio, Bizkaia
T.: 94 454 02 93 - Fax: 94 454 50 63

ANKAPALU

LARRABETZU
94455 81 97
LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)

ASTIKENEMOTOR
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781


- Plater konbinatuak
- Ogitarakoak
- Kaxolak
BIZKARGI KAFETEGIA
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55

Literaturaz Berbetan ekimenaren hitzorduak

Larrabetzuko egitasmoaren arduradunek hiru saio antolatu dituzte datozen hilabeteetarako. Urtarrilaren 16an, Idurre *Eskisabelen Goseak* janak liburua edukiko dute hizpide, eta Harkaitz Cano berbalagun izango dute otsailaren 20an. Saio horretan *Fakirren ahotsa* obra aztertuko dute. Azkenik, Katixa Agirrerren *Amek ez dute* nobelaz arituko dira martxoaren 6an. Hitzordu guztiak 19:00etan, Anguleri kultur etxean, izango dira.

Txorierrin ibilitako apaiz bat salatu dute sexu-abusuengatik

Salaketa eskaut elkartearen egon diren hiru emakumek egin dute, eta, gainera, haietako bat adingabeakoa zen abusuak gertatu zirenean. Salatua Mungiako presbiteroa zen, eta Derion, Zamudion, Lezaman eta Larrabetzun ibili da abade. Eskaut taldeetako arduraduna ere izan da.

Bilboko Apezpikutzatik jakinarazi duten moduan, barruko ikerketa bat egin da eta Fiskaltzari eman diote ondorioen berri. Fiskaltza gertatutakoa ikertzen dabil. Elizak zeregin eta ekintza publiko guztietatik aldentu du apaiza.

Biotalde Deriora ekarri du bere egoitza

Biotalde enpresak elikagaien segurtasunean eta ingurumen osasunean dihardu 1988. urtetik hona. Bere sektorean 30 urteko eskarmentua dutela, batez ere alderdi biologiko kritikoan diagnostikoa aritzen dira, hala nola osasun publikoa eta enpresen hobekuntza errespetatzen dituzten prebentzio programen eta aurreratutako irtenbide teknologikoen diseinuan, ezartzean eta kontrolean. Era berean, aholkularitza eta heziketa eskaintzen dizkiete beren bezeroei.

Lantaldea 11 emakumek eta gizon batek osatzen dute, hainbat diziplinatan adituak direnak, esate baterako, Biokimikan, Elikagaien zientzietan eta teknologian eta Ingeniaritza kimikoan. Enpresaren egoitza Deriora, San Isidro II industrialdera hain zuzen ere, urtearen hasieran ekarri zuten arren, haren inaugurazioa abenduan egin dute. Instalazioetan hainbat lagun batu ziren, eta besteak beste, mago baten emandiarekin eta hari-laukote baten musika saioarekin gozatu ahal izan zuten.



PELUKERIA
Estetika
94 455 81 44
Anguleri 2, behea Larrabetzu-Bizkaia

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa
Tasarietako bidea, 9-4
413, bulegoa
48100 Derio
Telefonoa eta faxa
94 452 44 91
a.amondarain@euskalnet.net

SARRIKOLA
OGITEGIA
Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta
Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

sarraila-denda
Txorierrri
ADITUAK SARRAILAGINTZAN ETA SEGURTASUNEAN
946 038 663
625 100 800
info@cerajeriatxorierrri.com
www.cerajeriatxorierrri.com
Alain Pomposo Zarate
Urkiola, 4. lorja
48160 Derio

yedra
floristas
Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

Eskolako teilatua konponduko dute Sondikan

Sondikako Udalak jakinarazi duen moduan, Eusko Jaurlaritzak Gorondagane ikastetxeko teilatua konponduko du. Eraikinak itoginak ditu eta hezetasuna dago haren barruan. Gurasoak horren kezu azaldu dira behin baino gehiagotan. "Nahi baino denbora luzeago eman dugu arazo honekin, baliabide ekonomikoak beti mugatuak dira eta", esan du Xabier Zubiaur Sondikako alkatea. Lanak urrian lizitatu ziren eta 2019ko udan egingo dituzte, eskola-jarduerari oztoporik ez ekartzeko. Lanetan 329.507 euro ipiniko dira, eta lau hilabete iraungo dutela aurreikusi dute.

Bestetik, Udalak herriko luminaria guztiak aldatzeko asmoa du, eta abenduan LED argiak ipintzen dabiltza auzo hauetan: Artxanda, Berreteaga, Izartza, Zangroiz, Aresti eta La Campa. Horrela, Auzoen zinegotzia zerbitzuaren bidez egin den eskaerari emango diote erantzuna. "Auzoetako argiak hobetzen baditugu, segurtasun handiagoa edukitzeaz gainera energia aurreztuko dugu", esan du Zubiaurrek. Lanetan 19.158 euro inbertituko dute.

San Joan elizaren ondoan dagoen lursaila urbanizatzeko proiektua ere onartu da, eta bertan plaza handi bat atonduko da. Espero dute lanak udaberrirako amaituta egotea. Udala Artzapezpikutzarekin dabil harremanetan, bera delako alboan



dagoen beste lursail baten jabea. Azaldu dutenez, helburua Artzapezpikutzaren partzela ere urbanizatzeko-prozesuan sartzea da eta, horrela, gunea uniformea izan dadila. Lursaila urbanizatzeko Izartza bidea eta Sondikako Kultur Etxea, plaza berriaren bidez, lotzea ahalbidetuko du. Plazak 800 metro koadro edukiko ditu, eta 1.227 metro karratu izan litzake, elizaren lursaila ere urbanizatzen bada. Behin proiektua esleitu eta gero, aurreikusi da lanak datorren urteko lehen hiruhilekoan hasiko direla, eta 10 aste iraungo dutela.

Loiuk ia 4 milioiko aurrekontuak onartu ditu 2019rako

EAJK eta EH Bilduk aldeko botoa eman zuten, eta PP abstenitu egin zen. Aurtengo aurrekontuen aldean, 2019koek % 6,03ko igoera edukiko dute, eta, adierazitakoaren arabera, zergak bere horretan utziko dira.

Aurrekontuek herritarrak eta horien beharrianak dituzte ardaztat, eta, beste jarduketak batzuen artean, etxebizitza berria bultzatuko da Hariztondo -Txiline gunean, frontoia berrituko da, Zamarripa-raino luzatuko dira bidegorria eta espaloia, eta Loiu Antzoki (kultura etxe berria) garatuko da.

Bestetik, EH Bilduk euskararen, ondare ekologikoaren eta kale-ratzeen kontrako protokoloaren inguruan egindako proposamenak jaso dituzte aurrekontuetan, eta PPrekin bigarren mailako saneamendu-sarea berritzea adostu dute. Era berean, aurrekontuak gizarte politikak eta kultura eta kirol arloko ekintzak finantzatzeko ere erabiliko dituzte. Herriko elkarteak diruz laguntzeko ere bai.



auzoKide
Finken administratzailea
LORENA GAMBOA AGUIRRE
Txorisolo 4, behea B **634 410 470**
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala
Izarza Pol. 48150 Sondika Bizkaia
94 453 25 15
94 453 39 31

IRATXO
gozotegia
tarta personalizatuak
trufak
lelak
pastelak
pastak
Mikel Zurita, 2 - 3. lorja • Sondika, 48150 • 94 645 89 19

TXORIERRI
Inmobiliaria
Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net
aurrezgainik gertu
ABOKULARITZA - TASAZIOA
ALOKATZEAK - ESKUALDATZEAK
SALEROSKETAK
SEGUROS BILBAOEN AGENTZIA

GALAISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51
Sabino Arana 1-3. SONDIKA

Lzpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA
Sabino Arana, 3 lorja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - lzpilen@gmail.com

Urko Dañobeitia lezamarra, Bizkaiko ziklo-kros txapelduna

Azaroaren 25ean, Bizkaiko ziklo-kros Txapelketa jokatu zen Lezaman, eta hainbat txirrindulari (300 inguru) sartu ziren lehian, hainbat kategoriatan. Kadete mailan, Urko Dañobeitia lezamarra nagusitu zen. Senior kategorian, Aitor Hernandezek eta Olatz Odriozolak irabazi zuten lasterketa.

Zorribike Lezamako taldeak ziklo-kros zirkuitua antolatu zuen bederatzigarren aldiz, Lezamako Udalaren eta Bizkaiko eta Euskadiko Txirrindularitza Federazioen babesarekin. Aurten, zirkuitu berria atundu dute. "Jendea pozik ibili da ibilbide berriarekin. Aurreko urteetan herri-gunean egiten genuen, baina aurten Kurtze auzoan antolatu dugu. Geu ere bagaude pozik", esan digu Jose Manuel Olano Zorribike elkartearen presidentek.

Pozik bai, baita kezkatuta ere. Izan ere, gero eta zailagoa da lasterketa antolatzea. "Jendeak lasterketa baino ez du ikusten, baina atzean lan ikaragarria egin behar da, dena behar bezala ateratzeko. Eta babesleak ere behar dira; hau da, dirua behar da, eta hori zaila baino zailagoa da gaur egun. Guk lan egiteko gogoia dugu, baina dirurik gabe ezin da ezer egin. Jarraitzea gustatuko litzaiguke; azken batean, azpimarratzeko modukoa da ziklo-kros maila guztietako txirrindularirik onenak non eta Lezama bezalako herri txiki batean batzen direla".

100 AUTO KLASIKO INGURU BATU ZIREN LARRABETZUN.– Larrabetzu Racing elkarteak auto klasikoaren erakusketa egin zuen abenduaren 16an, 10. aldiz. Herriko plazan eta haren inguruan, hainbat lekutatik etorritako 100 bat auto batu ziren; motor batzuk ere ipini ziren ikusgai. Antolatzaileek adierazi duten moduan, eguraldi txarra espero zuten, baina euriak atsedena eman zuen eta jende asko animatu zen Larrabetzuraino hurbiltzera. Beraz, Racing elkarteak pozik azaldu dira. "Larrabetzu–Vivero–Lezama–Fika–Larrabetzu ibilbidea egin zuten 50 autok. Tolosatik ekitaloak egiten dituen lagun bat etorri zen eta horrek ere oso harrera ona eduki zuen. Gainera, Miserableak herriko taldeak kontzertua eman zuen. Gure aldetik, oso pozik gaude ekitaldiak izandako emaitzarekin". Hain pozik, ezen datorren urteko hitzordua buruan baitute dagoeneko. *a: Idoia Andres.*



2019rako Egutegi Pertsonalizatuak



Parque Tecnológico de Bizkaia, 105 - 48170 Zamudio
www.cianoplan.es • 902 103 763



Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Añoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

Jatetxea **SAN ISIDRO**

ETXKO ORELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXKO GOROGINTZA APARTA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefona 94 454 07 98
Fax 94 454 14 18

Mungialde etorbidea, 25
48190 CERIO

**BASALBEITIKO
TXAKOLINA**

Bizkaiko Txakolina
Denominazio Jaurerria

Bizkaiko Txakolina

Goitioitza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46



Mertxe Peula eta Juan Ramos | pintxoak eta Winchesterrak

Mertxek eta Juanek garbiketan eta eraikuntzan egiten zuten lan hurrenez hurren, harik eta 2002an Galdakaoko Aperri tabernan hasi ziren arte. Ostalaritzan kasualitatez hasi ziren. 2017an, Pikotea taberna zabaldu zuten Zamudion, Arbolantxa kalean, eta auzoko taberna batetik herriko taberna batera pasatu ziren. "Lan gehiago daukagu hemen", esan du Mertxek, astebururako kazolak prestatzen hastear dagoela. Tabernak Juanek berak sortutako dekorazio aparta dauka, Euskal Herriko eszenak Far West edo Mendebalde Basati-koekin uztartzen dituena.

Aupa Mertxe eta Juan
hau sorpresa hara!
Pikoteora pozik
hurbilduko gara
Jan edan ta ikusi
leiken tabernara.
Bizkaia Euskal Herriko
mendebaldea da!

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti / @jongoikouria

Itallen Bertso Eskola



Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak | Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa | Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuefarako, galdetu.

Ibáñez de Bilbao, 3. 2. solairua, 48001 BILBAO

TEL. 94 424 38 34

"Betiko izango naiz txirrindularia"

a: Fanny Schertzer eta Dimension Data taldea

IGOR ANTON | txirrindularia

Derion izan zinen. Zelan omenaldia?

Egun hartan, Miguel Madariagaren liburua izan zen garrantzitsua. Miguelek hainbat urte eman ditu Euskadi Fundazioan, eta neuk ere bai. Beraz, polita izan zen han omenaldia jasotzea, nire bigarren familia direlako. Ibilbide polita izan dudala uste dut. Atzera begiratzen dudanean, melankolia apur bat sentitzen dut, baina baita poza ere, jendeak aintzat hartzen naudelako eta gogoan naudelako.

Zaila izan da uzteko erabakia hartzea?

Bai. Erabakia oso garrantzitsua da, bizitza erabat aldatuko delako. Batzuek uzten dute, fisikoki jarraitu ezin dutelako edo min hartu dutelako; nik, ordea, momentua erabakitzeak aukera izan dut eta, gainera, World Tourren –hau da, goi-mailako talde batean– nengoela. Txirrindularitza faltan botako dut, ba; baina momentu onean uztea pribilegioa da.

Aurten, denboraldi-aurrerik ez...

Ez (kar, kar). Txirrindulariak abenduan hasten dira hurrengo denboraldia prestatzen, eta han egiten diren saioak-eta politak dira: lagunak, taldekideak... Momentu horiek izango dira gehien faltan botako ditudanak. Oso gogorak dira, baina oroitzen onak izango ditut betiko. Gainera, sufritzea ere bada kirol honen xarma; txirrindularitza maite dugunok ondo pasatzen dugu bizikletaren gainean sufritzen.

Zergatik utzi duzu?

Hainbat arrazoiengatik. Duela gutxi aita izan naiz eta denbora gehiago eman nahi dut familiarekin. Ahalegin handia egin behar da behar bezala ibiltzeko: gazteak sendo datoz eta nik 35 urte ditut...

Eta orain? Zer egingo duzu?

Ez daukat argi. Motibazioaren inguruko hitzaldiak ematen nabil eta, agian, horren haritik, zerbait ikasiko dut. Negozio txiki bat ere badaukat, baina ez dit zortzi orduko arreta eskatzen. Presa barik, gauzak aterako dira. Otsailean aitarekin joango naiz Nepalera. Eta gero gerokoak.

Bizikleta pikutara bidaliko duzu ala jarraituko duzu bizikletaz ibiltzen?

Beste kirol batzuk egiten nabil –korrika, mendira joan...–, baina bizikletaz ibiltzea nire pasioa da. Eta jarraituko dut ibiltzen.



Euskal txirrindularitzan, Igor Anton erreferentea izan da azken 14 urteotan. Aurten, txirrindulari profesionala izateari utzi dio, eta horregatik jaso zuen omenaldia Derion, Gela Pedagogikoaren 20. urteurrenaren haritik.

Igor Anton Hernandez

Jaiotze-data:

–Galdakao, 1983-03-02

Debuta, zaletu mailan:

–2003 (Orbea)

Debuta, profesional mailan:

–2005 (Euskaltel)

Ezizena:

–Fuji, gaztetan bizikleta marka hori erabiltzen zuelako.

Garaipen-zerrenda:

–21 aldiz hartu du parte Itzuli handietan.

–3 etapa, Espainiako Itzulian

–Etapa bat, Italiako Giroan

–Asturiaseko Itzulia (2015)

Betiko izango naiz txirrindularia, bizikleta nire pasioa delako.

Zure ibilbideari buruz hitz egin dezagun. Lorpen onena eta momenturik okerrena?

Profesionala aritze hutsa bada ikaragarria. Lehenengo garaipenak beti dituzu gogoan eta, noski, nire egunik onena, 2011ko Espainiako Itzulian, Bilbon, irabazi nuen etapa da. Momentu txarrei dagokierik, ez nituzke porrotak edo lesioak aipatuko, errepidean galdutako lagunak baizik.

Zelan gogoratzen duzu 2011ko Espainiako Itzuliko Bilboko etapa hori?

Oso egun polita izan zen. Itzuliak 33 urte eman zituen Euskal Herria bisitatu barik. Etapa nire herritik pasatu zen, eta nire lagunek nire izena margotu zuten El Viveroko aldatetatik. Ez dakit zenbat aldiz

*"Txirrindularitza
maite dugunok
ondo pasatzen
dugu bizikletaren
ganean sufritzen"*

entrenatu dudan El Viveron! Gainera, etapa Itzuliaren amaieran izan zen, eta izugarri sufritu behar izan nuen hara heltzeko, etapa hori bai ala bai egin nahi nuelako. Helmuga Bilboko Kale Nagusian izan zen, eta hori ere oso hunkigarria izan zen.

Arantzaren bat gelditzen zaizu?

Tira, 2010eko Espainiako Itzulian erori nintzen, eta agian horregatik galdu nuen lasterketa irabazteko aukera. Hala ere, momentu txarrak ere hartzen ditut kontuan, nire ibilbidearen zati garrantzitsua ere badirelako. Pozik nago egindako bidearekin; ezin dut gehiagorik eskatu. Gaztetan ez nuen uste profesional mailan arituko nintzenik, eta 14 urte eman ditut goi-mailan.

Hiru taldetan egon zara: Euskaltel, Movistar eta Dimension Data. Nola gogoratzen duzu bakoitza?

Oso desberdinak. Nire ibilbidea puzzlea izango balitz, talde bakoitza puzzle horren zati bat izango litzateke. Euskaltel bihotzeko taldea da; batez ere buruzagi ibili nintzen bertan. Movistar taldean, aldiz, laguntzaile, eta nire jokaera errepidean aldatu egin behar izan nuen. Talde horretan, munduko txirrindularirik onenetarikoekin ibili nintzen eta izugarri ikasi nuen: Alejandro Valverde, Nairo Quintana... Nairorekin Italiako Giroa irabazi genuen. Azkenik, Hegoafrikako Dimension Data taldera joan nintzen eta esperientzia itzela bizi izan nuen bertan: hainbat herritako lagunak ezagutu nituen, Qhubeka Fundazioarekin batera bizikletak banatu genituen herrialdeko gazteen artean... Hori guztia ezin da kontatu, bizi egin behar da. Eta ingelesa hobetzen lagundu dit.

Hiru itzuli handiak egin dituzu. Zein da onena?

Guztiak dira itzelak. Esate ba-

*"Bilbon irabazitako
etapa bizikletaren
ganean bizi izan
dudan egunik
politena izan zen"*

terako, Tourra oso polita eta gogorra da. Esaten da txirrindulariaren txartela bertan lortzen duzula. Giroa oso mitikoa da, Italian txirrindularitza pasioz bizi dutelako; baina batez ere Espainiako Itzulia aipatuko nuke, bertan momenturik onenak bizi izan ditudalako.

Bukatzeko, euskal txirrindularitzari buruzko hausnarketa eskatu nahi ditzut. Zer irizten diezu Euskadi-Murias eta Euskadi Fundazioa proiektuei?

Ez da momentu erraza World Tour mailako talde bat sortzeko, horretarako dirutza behar delako. Dena dela, Euskal Herrian zaletu asko daude, eta proiektu polit bat atara ahal da aurrera. Ez dakit Euskadi-Murias, Euskadi Fundazioa, biak batera... Agian, taldea ez da goi-mailakoa izan behar; agian, kontinental mailakoa izan daiteke.



TURREGOITI JATETXEA
Laurgoetia etorbidea, 27
48180 Lolu-Bizkaia
T-Fax: 94 453 24 40
restaurantleuregoiti.com

elekma
URPATZEREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRAK,
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TOSAK.
Lehenengo markak • Preziozko onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txarri etorbidea, 25-3.N. 48180 Lolu
T: 944 539 232
www.elekma.es

LEIRE BEGOÑA
ULE-APAINDEGIA
MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32
Jarrai jarraun Facebook-en

LOREGARBI **GARBIKETA ZERBITZUAK**
Garbi-ikusiak, orokorrean
Azuloen konsumatibak
Mantueko garbi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Olinu amariako garbierak
Bastoreak
Zabor biltzea

Besaide Plaza, 1 - B° Aldekoa
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

Nire Autoocasion NA
IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 3 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobilak: 686 97 06 41 - 646 16 77 12
Telefonos-Fax: 94 454 51 92
www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

BATZOKI LOIU

Eguneko menua
Asteburuko menua
Menu bereziak
Bakariak, enkarguz
Hamburgesak
Plater konbinatuak
Anoak
Otarkeak

Ahadetxe kalea, 8
LOIU
Tel. 94 612 95 35

"Zoriontsua naiz, nire lana izugarri gustatzen zaidalako"

t/a: Gaizka Eguzkitza

Sondikan jaio zinen, baina nolako harremana duzu herriarekin?

Sondikan hazi naiz. Gurasoak hemen bizi izan dira beti, eta gaur egun aitarekin bizi naiz bertan. Txikitan ludotekara-eta joaten nintzen, baina, egia esan, ez dut inoiz bizitza handirik egin herrian: Bilbo-ko eskola batean ikasi nuen, eta lagunik onenak han ditut.

Zergatik erabaki zenuen barne-diseinua ikastea?

Gaztetan arkitektoa izan nahi nuen, baina hori ikastea oso zaila zela ikusi nuen, barne-diseinatzailea izatea erabaki nuen. Izan ere, Arkitekturan gehien gustatzen zitzaidan zatia barne-diseinua zen, egiturak kalkulatzeko baino. Ez nintzen oso ikasle ona, eta horregatik aldatu nuen; bide erraza hartu nuen. Eta pozik nago hartu nuen erabakiarekin. Ikastea garrantzitsua da; baina lan egiteko gogoia eta jarrera, askoz garrantzitsuagoak. Horiek bereizten zaituzte.

Zertan datza barne-diseinua?

Barne-diseinuak lan txikiekin dauka zerikusia, hau da, zure etxean egin ahal dituzun berrikuntzekin. Etxeko gelak apaintzen ditugu, altzairuak-eta non eta zelan kokatu... Lana oso anitza da, bezeroaren betebeharren eta jarreraren arabera. Bezero batzuek ardura osoa uzten dute nire esku: etxeko giltza eman eta handik aurrera nik egiten diet proiektua, langileak kontratatzen ditut eta altzariak aukeratzen ditut; beste batzuek, ordea, proiektua baino ez didate eskatzen eta eurek hartzen dute lanaren ardura. Bezeroak erabakitzen du, denboraren eta diruaren arabera.

Nolako bezeroak dituzue? Dirudinak dira guztiak?

Ez, ez pentsa. Bezeroak du azken hitza, bere aurrekontuaren arabera. Batzuetan, gure arteko konfiantza dirua baino askoz garrantzitsuagoa da. Bezeroak nire lanean sinetsi behar du, bestela jai dugu... Bezeroak funtsezkoak dira, ogibide honetan ahoz ahokoa oso garrantzitsua delako.

LETICIA HIDALGO | barne-diseinatzailea

Leticia Hidalgo ekintzailea da oso. Sondikoztarrak 25 urte ditu, eta, duela hile batzuk, barne-diseinuko enpresa sortu zuen Bilbon. Gainera, Wolcirt arropa marka ere garatu zuen orain dela urte batzuk. "Anbizio handiko neska naiz", esan digu.



Leticiaren ametsa

Leticia aspaldian sortu zuen arropa marka bat, Wolcirt, eta aurtun bultzada bat eman nahi dio. "Wolcirt, *a dream between clothes*, oihalen arteko ametsa. Batez ere surf eta skate kirolei dago lotuta: motxilak, txanoak, kamisetak, kirol-jertseak... Datorren urtean, yoga egiteko arropa linea bat jarriko dugu martxan. Laguntzaileren bat beharko nuke, marka aurrera ateratzeko, ni barne-diseinuan murgilduta nagoelako. Niretzat Wolcirt ez da diru-iturri garrantzitsu bat izango, baina gustatzen zait, nire ametsa da eta".

Zein izan da zure lan ibilbidea?

Denerik egin dut. Ikasketak bukatu nituenean, ez nuen lanik topatzen eta Londresera joatea erabaki nuen, ingelesa ikastera. Londresen, 21 urte nituela, zerbitzari ibili nintzen sei hilean. Nire ustez, ingelesa oso garrantzitsua da eta horri esker, hain zuzen ere, lan aukera batzuk sortu zaizkit: Italiako enpresa batek eskaini dit lana, yateak dekoratzeko. Eta azoketara joan behar naiz Estatu Batuetara edo Europara. Londresetik itzuli nintzen, lana Bilbon ateratzeko. Urtebete eman nuen barne-diseinu enpresa batean, eta geroago, beste batean.

Oso ekintzailea ematen duzu.

Bai hainbat lan izan ditut, nire ikasketekin zerikusia ez dutenak: zerbitzaria,



"Lan egiteko gogoia eta jarrera ikastea baino garrantzitsuagoak dira. Horiek bereizten zaituzte"

"Denerik egin dut: banatzailea, zerbitzaria, jostuna... Bizimodua atera behar da. Aitak horrela hezi nau"

areto-laguntzailea, jostuna, banatzailea... Bizimodua atera behar da. Aitak horrela hezi nau.

Zer eman dizute orain arte egindako lanek?

Batez ere, eskarmentua. Ia guztiek irakatsi didate zerbait. Candanchu herriko jatetxe batean, sukaldako laguntzaile ibili nintzen eski denboraldian, esate baterako, eta sukaldaria gaixorik jarri zen. Jatetxea leporaino zegoen, noski; beraz, langile guztiok bete-bete ekin egin behar izan genion, sukaldariaren baja betetzeko. Jostuna izateak pazientzia irakatsi zidan; laguntzaile izateak, jendaurrean egoten...

Zergatik ireki duzu zeure enpresa? 25 urte baino ez dituzu...

Bizkaian eta Bilbon, barne-diseinuko enpresa txikiak eta ertainak daude. Eta horietan soldata ona izateko, 10 urte pasatu behar dira. Eta, gainera, enpresa behar bezala ibili behar da. Negozio honetan dirua irabazi daiteke, gauzak ondo eginez gero. Eta horregatik hartu nuen nire kabuz hasteko arriskua. Lana gogorra da, ordu askokoa, baina sakrifizioak merezi du, etekina norberarentzat bada. Dirua banuen, eta anbizio handiko neska naiz. Beraz, zergatik ez? Eta txarto ateratzen bazait, eskarmentu handiagoa izango dut. Beti dago denbora beste estudio batera lan eske joateko edo, bestela, beste lan batera, denda edo taberna batera. Orain gaztea naiz eta ez dut ez seme-alabarik, ez ezer. Momentu ona zen enpresa sortzeko.

Zelan dabil enpresa? Damutu zara?

Ez, momentuz ez nago damututa. Bost hile daramatzat Uribarri auzoan, Bil-

bon. Higiezin agentzia batean daukat bulegoa, kalearen parean. Bulegoa bertan izatea oso aukera ona da niretzat, haien bidez bezeroak lortzeko aukera dudalako. Pozik nago, lana dudalako. Eta lanik izango ez banu, ikasi egingo nuke, ogibide honetan etengabe ikasi behar duzulako: joera berriak, modak, azokak... Baina hori niretzat zoragarria da. Nire lana izugarri gus-tatzen zait, eta zorionsua naiz horregatik.

"Barne-diseinuan dirua irabazi daiteke, gauzak ondo eginez gero"



Unibertsitate Itzala Kalea, 1
48180 - DERIO | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

BATXILERGOA

- Zientziak Batxilergoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazio Teknikari

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikari
- Produktzioa Programatzeko Goi-mailako Teknikari
- Automatizazioa eta Robotika Industrialeko Goi-mailako Teknikari
- Telekomunikazioa eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari
- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
- Ingurumen Hezikuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari

Adikzioen eta Osasunaren Sustapen Plana 2019an ipiniko da martxan

Dokumentuaren eraketan eskualdeko 651 pertsonak hartu dute parte; 341 ikasle eta hainbat udal zerbitzu eta komunitate-baliabideetako 68 lagun –besteak beste, udal zerbitzuetaoak eta gizarte eta hezkuntzako esku-hartze taldekoak–, haien artean.

Txorierriko Mankomunitateak 2019ko lehen hiruhilekoan jarriko du martxan “Adikzioen eta Osasunaren Sustapen Plana 2019-2023”. Lan horrek garrantzi berezia emango dio bizitza-ohitura osasungarriak sustatzeko eta adikzioak prebenitzeko kontzientziaioari. Gainera, azpimarratzekoa da herritarren iritziak aintzat hartu direla plana egiteko orduan.

Hala, Txorierriko gaur egungo premietara egokitze aldera, elkarriketak egin dira herritarrek ordezkatzen dituzten hainbat sektoretan informazioa bilitzeko. Zehazki, eskualdeko 651 pertsonari egin zaie elkarriketa, 341 ikasle eta hainbat udal zerbitzu eta komunitate-baliabideetako 68 lagun –besteak beste, udal zerbitzuetaoak eta gizarte eta hezkuntzako esku-hartze taldekoak–, haien artean. Horrez gain, 18 urtetik gorako 242 pertsonak hartu dute parte elkarriketetan. Parte-hartzaileek kontsumoei eta horien arriskuei buruzko iritzia eman zuten, eta osasunaren sustapenari lotutako ekintzetan dabilzan jakinarazi zuten. Gainera, jarduketa-proposamenak ere egin zituzten.

Beren eguneroko lana dela eta, adikzioen, kontsumoen eta jokabide arrisku-tsuen fenomenoaren “ezohiko lekuko” dira udal zerbitzu eta komunitate-baliabideetako langileak, baita ikastetxeetako zuzendaritza-taldeak, Gazteria Zerbitzuetao langileak eta herritarren segurtasunaren arloko langileak ere.

Ikuspuntu horretatik, gizarte eta hezkuntza ingurunean, familian eta irakasleen artean prebentzio-proposamenak egin beharra azpimarratu dute.

Era berean, aisialdi-aukera osasungarriak eskaintzearen garrantzia nabarmendu dute, bereziki gazteei –kontsumo posibleak hasi aurreko babes-faktore gisa–, eta pertsona nagusiei –egoera ezin hobean daudenak eta jakin-nahi handia dutenak–. Sarean eta era koordinatuan lan egiteko beharra ere aipatu dute.

Mendekotasuna sortzen duten substantzien kontsumoaz ez ezik, alkohola eta kalamua esate baterako, substantziarik gabeko adikzioek ere kezkatzen dituzte, hala nola sare sozialen, telefono mugikorren eta, batez ere, kirol apustuen erabilerak eta gehiegizko erabilerak.

Eskola-diagnostikoa

Eremu honetan datu kezagarriak atera dira ikasleei egindako inkestatik. Hamasei urtetik eta 18 urtera bitarteko % 30ek baino gehiagok esan du azken hilabetearen edo egunero hartu duela

parte kirol-apustuetan, eta 18 urtekoen % 13,3k adierazi du egunero egiten duela apustu. Ehuneko bera (% 13,3) dago kirol egunero ausazko jokoen ibiltzen direla esan duten 18 urteko ikasleei.

Gainera, inkestan nabarmendu da soilik inkestatuen % 50ek uste duela egunero jokatzea arriskutsua dela. Bi arrazoi-rengatik izan daiteke hori: alde batetik, ezjakintasunagatik; eta, bestetik, gutxietsi egiten dituztelako jokoen gehiegizko erabilerak izan ditzakeen ondorioak.

Alkoholaren, tabakoaren eta kalamuaren kontsumoari dagokionez, aurtengo zifrak aurreko urteetakoak baino lasaigarriagoak dira. Alkoholaren kasuan, adibidez, bikoiztu egin dira abstinentzia-ehunekoak, 2012ko datuekin alderatuta. Dena den, inkestak ohartarazi egiten du “ezin dugula ahaztu kontsumoa oso adin goiztiarretan hasten dela”. Hamahiru eta 14 urte dituzten Txorierriko ikasleen % 41,4 hasi da alkohola edaten, eta gehienak 15 eta 16 urte dituztenean hasten dira.

Era berean, 12 urtetik eta 21 urtera bitarteko lagunen % 75ek tabakorik inoiz

Alkohol, tabako eta kalamuaren kontsumoari dagokionez, aurtengo zifrak aurreko urteetakoak baino lasaigarriagoak dira





*Hamasei urtetik eta
18 urtera bitartekoen
% 30ek baino gehiagok
egin du kirol apustua
azken hilabeteen
edo egunero*

kontsumitu ez duten arren, inkestak ohartarazi egiten du prebentzioa lan-tzen jarraitzea garrantzitsua dela. Izan ere, "esperimentazioa osasunerako oso kaltegarria den etorkizuneko ohitura baten hasiera izan daiteke".

Kalamuari dagokionez, inkestak bereziki azpimarratzen du kontsumoaren hasiera 14-15 urte bitartean gertatzen dela. Horrenbestez, datu hori aintzat hartzea gomendatzen du "kalamuaren kontsumoa prebenitzea zein adinetan ezinbestekoa den jakiteko". Era berean, gazteei egindako inkestan, bideokoen, sare sozialen eta gailu mugikorren gehiegizko erabilera prebenitzeko lan egiteko aholkua ematen duten datuak atera dira.

Herritarrek, oro har

Herritarrei dagokienez, gehien kontsumitzen den substantzia alkohola delako ustea dago (% 75,6), ondoren tabakoa (% 60), eta, azkenik, kalamua (% 51,7). Gainera, azpimarratu egin da jokabide-adikzioen inguruan dagoen iritzia, bereziki kirol apustuei lotutakoa. Inkestatutakoen % 19k kirol apustuak aipatu dituzte mendekotasun handiena sortzen duten jokabideen artean, eta % 8,9k ausazko beste joko batzuk aipatu dituzte (makina-txanpon-jaleak).

Jokabide horiek prebenitzeko, parte-hartzaileek honako proposamen hauek egin dituzte: kalean tabakoaren edo alkoholaren kontsumoei buruzko sensibilizazio-kanpainak egitea, adin goiztiarretatik prebentzio-jarduketak antolatzea, polizia gehiago egotea (batez ere asteburuetan), alkohola saltzen duten

saltokietan kontrol handiagoa ezartzea adingabeek eros ez dezaten, eta apustu-makinak dituzten lokaletarako adingabeak sartzea kontrolatzea.

Ohitura osasungarrien atalean, inkestatu gehienek kirol edo ariketa fisikoren bat egiten dute: % 19k egunero egiten du; % 37,2k, astean birritan edo hiritan; eta % 21,5ek, astean behin edo gutxiago. Kirol jarduerak areagotzeko, ekintza hauek proposatu dira: kiroldegietako ordutegiak zabaltzea, osasun-zerbitzuen

eta kiroldegien arteko koordinazioa hobetzea, kirola aire zabalean egiteko ekipamenduak jartzea eta kirola egiteko talde antolatuak sortzea sustatzea.

Horrez gain, zentzu zabalago batean, osasun fisiko nahiz mentala sustatzeko prestakuntza-jarduerak egiteko ideiak proposatu dira –esaterako, elikadura eta sukaldaritza osasungarria, eta nerabeta-sunari, amatasunari, menopausiari eta helduaroari lotutako aldaketak–, baita haurrentzako tailer aktiboak antolatzea ere, osasunari, elikadurari eta kirolari buruzkoak kasu.

Ekarpen horiek guztiak kontuan hartu dira datozen hilabeteetan martxan jarriko den "Adikzioen eta Osasunaren Sustapenaren Plana 2019-2023" sortzeko.



LEHEN LAGUNTZAK, JAIOBERRI ETA HAUREN FAMILIENTZAT.– Esku-hartze komunitarioko zerbitzutik jaioberri eta hauren familiei zuzendutako bi tailer antolatu dira. Bost orduko iraupena izan dute, eta Zamudio eta Derioko udalerrietan egin dira. Hogeita hamabost pertsonak hartu dute parte eta oso balorazio ona jaso da.

t: Itxaso Marina Ondarroa

Azaldu duten moduan, banda marroia/gorria gaixotasuna azkar zabaltzen den arren, pinuen monolaborantzara zuzendu diren basoek urteak daramatzate gaixotasunak jasaten, hala nola pinuaren minbizia moduan ezaguna den onddoa eta pinu-beldarra. Lezamako basoak ere gaixorik daude, eta haietako batzuk, gainera, erabilera publikoko basoak dira. "Udalak 213,88 hektarea ditu Santa Marina Gangurengana mendian. Hektarea horietako % 94 arboladia da, eta pinu *pinaster*-ak 62 hektarea hartzen ditu; pinu *radiata*-k, 42 hektarea; eta eukaliptoak, 36,5 hektarea. Azken hamarkadetan, udal basoen kudeaketa Bizkaiko Foru Aldundiaren Baso eta Mendi Sailaren esku egon da, eta emaitza begi bistan dago: pinu eta eukaliptoaren gehiegizko monolaborantza, eta balio natural eta etekin ekonomiko gutxiko basoak, lezamarrok disfrutatzeko inongo erakargarritasunik ez dutenak. Lezama eta Udalak eskubidea dute –eta betebeharra– egoera aztertzeke; eta ados ez badaude, beste aukera batzuk bilatu eta proposatzeko".

Elkarteak beharrezkotzat jo du baso-plan tekniko bat egitea, kudeaketa-irizpideak ezartzeko. Izan ere, jakinarazitakoaren arabera, Santa Marina Gangurengana mendiaren kudeaketa plana jasotzen duen dokumentua irakurtzeko aukera izan dute, eta hori ez da inongo plan teknikotan oinarritzen.

Lezama Bizirik elkartearen ustez, plan tekniko horrek arautu beharko lituzke Lezamako basoen kudeaketa eta ustiapena, batez ere lursail publikoetan eta erabilera publikoko mendietan daudenak. Era berean, plan teknikoak, gutxienez, bost irizpide hartu beharko lituzke kontuan:

Lehenengo eta behin, aniztasun ekologikoa. Elkarrekin pinu eta eukaliptoen monolaborantza progresiboki aldatzeko proposamena egin du, eta, zuhaitz-espe-

Lezama Bizirik elkarteak bas egiteko proposamena aurke

Proposamenak Lezamako mendi publikoaren kudeaketa eta ustiapen-erregimena ezartzea du helburu, eta hura Udaleko osoko bilkura osatzen duten alderdi biei –EAJ-PNV eta EH Bildu– egin diete.



zie horien ordez, bertoko zuhaitzak landatu. "Aniztasunak hobetzen du basoak CO2 atmosferikoa xurgatzeko duen gaitasuna. Gainera, ekonomia-ikuspuntutik, ekoizten den egurrak kalitate hobea du. Aniztasunak lurraren emankortasuna ere hobetzen du. Bestalde, inportantea da pinuaren ordez eukalipto landatzeko aukera baztertea".

Bigarrenez, bertoko basoa berreskuratzea eta zabaltzea. "HAZik –Landa, Itsasertz eta Elikagaien Sustapenerako

erakundea– egindako azterketaren arabera, berton berez egongo liratekeen zuhaitzak haritzak eta elorriak dira. Hala ere, Lezaman, erabilera publikoko mendian, pinuek eta eukaliptoek 150 hektareak hartzen dituzte; eta kontserbazio basoek, berriz, 40 hektarea".

Oxido kuprosoa

Hirugarrenik, bertoko zuhaitzak erabiltzea, baso iraunkorrak sortzeko. "Horretarako, arraseko mozketak eta antzeko

Goitioltza, 33 bis LEZAMA
620 15 36 93 – 94 633 81 07
9:00-20:00
www.centroecuestresolazpi.com
solazpi.zalditegia@gmail.com

48190 LEZAMA Euzkadi Centro de Estudios de la Zona
S.A.T. LEZU
ERAKUTSUNTZA ETA BASO-LANDEAK
Tf: 94 455 64 17 Tf: 94 455 64 98

TABERNA
GAZTEDEI
Eguneko menuak
Ospakizunak
Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

o-plan teknikoa ztu du Udalean



sistema kaltegarriak debekatu beharko lirateke, horiek basoari kalte handiak eragiten dizkiote eta. Esaterako, lursorua babesik gabe uzten da eta lehortzen hasten da; muturreko tenperaturak handitu egiten dira; euriak erosio larria eragiten du; eta espezie inbaditzaileak sortzen dira”.

Laugarrenik, naturatik ahalik eta gertuen dagoen baso-kudeaketa ezartzea. “Baso-pistak mugatu eta kontrolatu behar dira. Makina eta ibilgailu astunen erabilera ere debekatu behar da, batez ere urteko hile euritsuetan. Era berean, naturatik gertu dauden teknikei eman behar zaie lehentasuna, eta ahalik eta produktu kimiko gutxien erabili”. Horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak Espainiako gobernura bideratu dute eskaera bat, oxido kuprosoa erabilita aireko tratamendua egin ahal izateko, eta pinuen gaixotasunari aurre egiteko. Lezama Bizirik el-

*Planak arautu beharko
lituzke Lezamako
basoen kudeaketa,
batez ere lursail
publikoetakoak*

*Besteak beste, aniztasun
ekologikoa eta
naturatik gertu dagoen
baso-kudeaketa eduki
beharko lituzke kontuan*

karteak eskatu dio Udalari tratamendu horren kontrako jarrera azaltzeko. “REACH arautegian jaso den moduan, kobre oxidua uretako organismoentzat toxikoa da, eta ingurumenerako arrisku kronikoa eta handia ere bada. Gainera, ez dago frogatuta gaixotasun horren aurka eraginkorra denik”. Airetik fumigatzea Europan debekatuta dagoela ekarri dute gogora. “Espainiako Ingurumen Sailak *baimen bereziak* emateak ez dakar Udalak hori onartu behar izatea. Zehaztasun gutxiko praktika da, batez ere gurea bezalako lurraldeetan, zeinetan basoak, baserriak, aisialdirako guneak, baratzak, landak, azpiegiturak eta abar tartekatzen baitira. Praktika horrek ingurua eta herritarren osasuna ipiniko ditu arriskuan”.

Eta azkenik, jabe partikularrentzako aholkularitza eta laguntza zerbitzua martxan ipintzea, euren basoak modu jasangarriago batean kudeatu ditzaten. “Horrez gainera, honetan ere ahalegina egin beharko luke, Administrazioetik sektore pribatuari ematen zaizkion diru-laguntzak birbideratu, eta bertoko basoak berreskuratu eta indartzen, eta naturatik gertu dauden tekniken erabilerari lehentasuna ematen”.

EH Bilduk proposamena eraman du abenduaren 13an egindako udalbatzara, baina gai ordenan ez zegoenez, ez zen onartu. Hala ere, EAJk adierazi zuen prest zegoela gaia denbora gehiagorekin aztertzeke eta hurrengo udalbatzar batean horretaz aritzeko.

PiKoteo Taberna

KAXOLAK - OLAGARROA
TXIPIROIAK

LEHENDAKARI LEIZAOLA PLAZA, 6
48170 ZAMUDIO
689 213 782

Oscar Benegas Dañobeitia doktorea
Familia eta komunitateko medikuntza

Garaioltza 74
LEZAMA 48196

660 359 939

Cosalud SANITAS

IMQ
Tu seguro médico

Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

*Pentsu
naturalak*

Osasuna, kirola eta dibertimendua



Ezequiel Cuetos Castresanak, zentroaren zuzendari teknikoak, adierazi duen moduan, langileen egitekoa jendeari eragitea da, ohitura osasungarriak har ditzaten; hots, ariketa fisikoa sarritan egin dezaten eta elikadura egokia izan dezaten. Horretarako, ahalegina egiten dute giro hurbila eta familiarra sortzen, eta, horrela, ikasleek ariketa fisiko osasungarria, segurua eta dibertigarria egin ahal izateko. Izan ere, BC Fun Fitness GYM gimnasioaren profesionalak haiengana jotzen duten lagunen helburuez, beharrian eta nahiez arduratzen dira. Horren seinalea da ikasle guztiei beren izenarekin deitzen dietela. Gainera, beste gimnasio batzuen aldean, ikasleek ez dute bakarrik instalazioak alokatzeagatik ordaintzen, baizik eta lehenengo egunetik badute beren eskura monitore bat –edo bi, batzuetan–, ariketekin lagunduko diena, jarraibideak ezarriko dizkiena eta ariketa atsegingarriak aginduko dizkiena. Era berean, bertako profesionalak lehenengo egunean ere diseinatuko diete kirol-programa pertsonalizatu bat, ariketak gustura eta beren beharrian arabera egin ditzaten. Kirol-programa hori egiteko, ikasleen osasuna eta kirol-ohiturak hartuko dituzte kontuan. Nolanahi ere, nahi duen ikasleak en-

BC Fun Fitness GYM gimnasioak ez du bezerorik, ikasleak baizik; eta han dabilzan profesionalak helburu argia dute: ikasle horiei laguntza osuntsuago egoten, euren helburuei heltzen eta zorriontsuagoak izaten. Hau da, gimnasiotik ateratzen direnean sartu ziren baino hobeto atera daitezela.

trenatzaile pertsonala hartzeko aukera du. Hori *low price* zerbitzua da: entrenatzailea ikaslearekin ordu batean egon beharrean, benetan bakarrik egin ezin dituen ariketekin lagunduko dio. Ondorioz, 30-40 minutuko saioak izango dira.

BC Fun Fitness GYM gimnasioak beste zentroekin alderatuta duen beste abantaila bat da bere ordutegia. Eguberrian eta Urteberrian izan ezik, gimnasioa asteko egun guztietan dago zabalik: asteleheneetatik barikura, 07:00etatik 23:00etara; eta

zapatuetan, domeketan eta jaiegunetan, 08:00etatik 15:00etara. Denborarik eza, beraz, ez da aitzakia ariketa fisikoa ez egiteko.

Coach motibatzaileak

Gimnasia joaten denak eguneroko estresetik urrundu nahi du. BC Fun Fitness GYM gimnasioak hainbat aukera eskaintzen dizkio helburu hori betetzeko. Horrela, bada, ohiko ariketatik aparte, hala nola muskulazio- eta zirkulazio-ariketak eta intentsitate handiko entrenamenduak, bertan *fit box*-a, ariketa abdominal hipopresiboak, pilatesa eta *krav maga* egiteko aukera ere badago. Halaber, HIIT makina-zirkuitua dute, eta *crossfit*-a eta aire zabaleko eskolak eskaintzen dituzte. Talde-saioetan lagun gutxik hartzen dute parte, zerbitzu hobea eta hurbilagoa emateko.

Zentroko instalazio handiez gain, BC Fun Fitness GYM gimnasioan oso berriak diren hainbat makina dituzte, eta ahalegintzen dira kirol-ekipamendua urtero berriztatzen. Hango monitoreek heziketa eta eskarmentu handia dute kirol arloan, eta etengabe birziklatzen dute euren buroia, azken kirol-teknikak ezagutzeko eta ikasleei beren garapenean modu egokian lagundu ahal izateko, monitoreak ez ezik, *coach* motibatzaileak ere badira eta.



Jarraitu    YouTube

Fun Fitness GYM

Ugaldeguren II industriagunea 9. partzela, 3. industria-nabea
628836753 - 944520815 gymtxorierri@gmail.com



Solidarioak

BC Fun Fitness GYM gimnasioan kirola eta solidaritatea uztartuko dituzte abenduaren 29an. Egun horretan, ongintzako eskolak eskainiko dituzte, eta batzen den dirua Friedreich ataxia duen Txorierriko ume baten familiari emango diote, auto egokitu bat erosten laguntzeko. Esate baterako, zumba *masterclass*-a egongo da, *fit box*-a eta *indoor* ziklismoa. Parte-hartzaileek bost euro ordainduko dute eskola baikoitzeko.

Bestetik, gimnasioaren arduradunei eskualdeko enprekin eta erakundeekin lan egitea gustatuko litzaieke, eta horien langileentzako berariazko programa bat diseinatu. Izan ere, Txo-



rierri osasuntsua izatea beren helburuetariko bat ere bada, eta helburu hori betetzeko erreminta egokiak izateaz gainera, horretarako motibatuta ere badaude.



Gero eta ohikoagoa da Olentzeroren kabalkadetan Mari Domingi ikazkinaren ondoan ikustea. Biek gozokiak eta oparixoak banatzen dabaz umeen artean, eta, urtean zehar zintzoak izan bagara, erregaluak ekartzera sartzen dira gure etxera gauean. Baina nor da Mari Domingi?

Mari Domingi 1994. urtean jaio zan Donostian, genero parekotasuna bultzatzeko. Mari Domingi izena Resurreccion Maria de Azkuek XX. mendean jasotako Gabonetako abesti baten azaldu zan, eta emakumeari hura ipini eutsien. Abesti horretan aitatzten dabaz emakumeak Be-lenera joan gura dau, jaio barri dan Umea ikustera, baina, horretarako, gonaz aldatu eta bere burua apaindu behar dauela di-notsie.

Beraz, Olentzero euskal mitologiaren pertsonaia bada, Mari Domingi be bai. Era berean, neguko solstizioaren inguruan egiten ziran antxinako ospakizunei lotuta dago. Gure arbasoek eguzkiaren, ilar-giaren eta izarren eragina hartzen eben kontuan, eta naturagaz harmonian bizi ziran. Halan, errituak egiten ebezan eguzki zaharrari –egun laburrak– agur esateko eta eguzki barriari –egun luzeak– ongietorria emoteko. Mari Domingik emakumetasuna eta neguaren eta urte barriaren etorrera irudikatzen dauz.

Mari Domingi artzaina da eta lurra landu be egiten dau. Oso ondo ezagutzen dauz eguzkiaren ibitaldia eta ilargiaren faseak, eta osabedarrak zeintzuk diran be badaki. Mendian bizi da eta bere etxea Olentzerorenetik oso gertu dago. Aspal-



**Zatoz, zatoz, zure
bila nenbilen ni!**

Eguneko menua 12 €
Menu berezia 25 €



Loroño behekoa **LARRABETZU**
www.ankapalusagardotegia.com
94 455 81 97





diko lagunak dira, eta beti emoten deuto
laguntzinoa alkarri. Antxina, neguko sol-
tizioan, ikatza banatzen eben etxez etxe,
herriarrek negu gorriari aurre egin ahal
leikioen. Gaur egun, garai berean, mendi-
tik jaisten dira Euskal Herriko umeei opa-
riak ekartzeko.

*Horra Mari Domingi
begira horri
gurekin nahi duela
Belena etorri.
Gurekin nahi badezu
Belena etorri
atera beharko dezu
gona zahar hori.*

*Hatoz, hatoz, zure bila nenbilen ni!
Hatoz, hatoz, zure bila nenbilen ni!
Hatoz goazen ta gurtu dezagun
Belenen jaio den Haurtxo eder hori,
Haurtxo eder hori.*

*Irrintzi eta poza,
algararekin
hori behar dinagu
guk elkarrekin.
Pozez adora (de)zagun
Jesus haur ona
berak ekar d(i)ezagun
gaur zoriona.*

*Hatoz, hatoz, zure bila nenbilen ni!
Hatoz, hatoz, zure bila nenbilen ni!
Hatoz goazen ta gurtu dezagun
Belenen jaio den Haurtxo eder hori
Haurtxo eder hori.*

Zorionak eta loaldi berri on!

SUIT DELUX LEIOA
Avanzada, 80. Leioa
944 316 516

SUIT DELUX
MARKA ETXELAGIAK. ATZEDERIK GABO
www.suitdelux.com

SUIT DELUX DERIO
Derioko seminarioa, Derio
944 545 147

Zamudio

Abenduak 22, zapatua

–14:30 Adintsuen Taldearen urte amaierako bazkaria.

–19:00 Zamudioko Kamara Koralaren Gabonetako kontzertua, elizan.

–19:00 Txalaparta tailerra, Gaztestazioan.

Abenduak 23, domeka

–18:00 Filma, Gaztestazioan.

Abenduak 24, astelehena

–10:00 Zamudioko Kamara Korala base-rriz baserri abestea.

–10:00 Gabonetako plater-tiroko saioa, Teknologia Parkeko tiro zelaian. Zamudio Ehiza eta Arrantza elkarteak antolatua.

–12:30 Ibilbidea, Sabino Arana plazatik.

–14:00 Bazkaria, Kultura Etxean.

–14:30 Umeentzako jarduerak eta herri kirolak, Kultura Etxean.

–16:30 Olentzeroren bila. Ostein, gutuna ematea eta txokolatada.

Abenduak 26, eguaztena

–16:00-21:00 Umeen Gabonetako Parkea, kiroldegian.



–18:00 Gabonetako tailerra, material birziklatuarekin. Gaztestazioan.

Abenduak 27, eguena

–11:00 “Gabonetako abenturak” ipuin saioa, Ludotekan.

–16:00 Umeen Gabonetako Parkea, kiroldegian.

–18:00 Tailerra, Larragoiti txokoan: Gabonetako postrea. Izena emateko azken eguna: abenduak 23, Gaztestazioan.



Abenduak 21, barikua

–Olentzero eta Mari Domingi solidarioak. Jostailuak Kultur Birikan utzi.

–20:30 *El curso de tu vida* antzezlan, Gurea Aretoan. Prezioa: 3 euro.

Abenduak 22, zapatua

–10:30-13:30 Olentzerok eta Mari Domingik gutunak hartuko dituzte Kultur Birikan.

Abenduak 23, domeka

–11:00-14:00 Hegazkinen erakusketa, frontoian. SUBYKE klubaren eskutik.

–12:00 *Pomper burbuila magikoak, burbuila baten barruan egotea* ikuskizuna, Gurea Aretoan. Prezioa: 3 euro.

Abenduak 24, astelehena

–11:30 Tokiko opena (zaleentzat), frontoian. Xake taldeak antolatua.

–17:00 Olentzero eta Mari Domingiri harri egitea, Errekalde parkean. Udalaren, Ipar Alde abesbatzaren eta Jantzi Jarauntsi Trouperen eskutik.

Abenduak 26, eguaztena

–20:00 Gabonetako gala, Kultur Birikan: emanaldiak, zozketak, omenaldiak... Udalak era Danerik Paraje elkarteak antolatua.

Abenduak 28, barikua

–18:00 Nagusien jaia, Kultur Birikan: dantza eta 1933an jaiotakoei omenaldia. Udalak eta Nagusien Etxeak antolatua.

Abenduak 29, zapatua

–11:00-19:00 Umeen Gabonetako Parkea, kiroldegian: puzgarriak eta tailerrak.

Abenduak 30, domeka

–12:00 Lainomendi dantza taldearen ekitaldia, kiroldegian.

Abenduak 31, astelehena

–11:30 Aldiberekoak, kiroldegian. Xake taldeak antolatuta.

Urtarrilak 5, zapatua

–18:30 Erregeen kabalgata, Kultur Birikatik.

Urtarrilak 14a arte

–Argazki lehiaketaren lanak, Kultur Birikan.

Abenduak 28, barikua

–16:00 Umeen Gabonetako Parkea, kiroldegian.

–Inozente Eguneko txantxak, Gaztestazioan.

Abenduak 29, zapatua

–12:00 Urte amaierako bazkaria, frontoian. Gaztestazioak antolatuta. Izena emateko azken eguna: abenduak 23.

–16:00 Umeen Gabonetako Parkea, kiroldegian.

Abenduak 30, domeka

–10:30 Artxandara igoera, Gaztestazioak antolatuta. Izena emateko azken eguna: abenduak 23.

–16:00 Umeen Gabonetako Parkea, kiroldegian.

–18:00 Filma, Gaztestazioan.

Abenduak 31, astelehena

–08:00 Burgoagarbola-Bakiora irteera (egun osokoa), Arroeta mendi taldeak antolatuta.

–10:00 Gabonetako plater-tiroko saioa, Teknologia Parkeko tiro zelaian. Zamudio Ehiza eta Arrantza elkarteak antolatuta.

–01:00 Urte amaierako kotilioia, Adintzuen Etxean.

–Gabon Zaharreko autobusa. Izena ematea: abenduaren 29a baino lehenago, Gaztestazioan. Prezioa: 5 euro.

Urtarrilak 2, eguaztena

–18:00 Tailerra, Larragoiti txokoan: Gabonetako postrea. Izena emateko azken eguna: abenduak 30, Gaztestazioan.

Urtarrilak 3, eguena

–11:00 BECera irteera, Gaztestazioak antolatuta. Prezioa: 3 euro, bazkideentzat; 6 euro, bazkide ez direnentzat. Izena emateko azken eguna: abenduak 30.

Urtarrilak 4, barikua

–19:00 Arku jaurtiketa, Kultura Etxean. Gezibide elkartearen eskutik. Izena emateko azken eguna: abenduak 30, Gaztestazioan.

Urtarrilak 5, zapatua

–11:00 Nekazamudio azoka, Kultura Etxean.

–19:00 Urteberriko jaia, Gaztestazioan. Izena emateko azken eguna: abenduak 30.



Loiu

Abenduak 24, astelehena

–12:00 Olentzero, Larrondon: Bolinaga kaletik Elotxelerriko plazaraino.

–17:00 Olentzero, Zabaloetxen: Klarisetatik Zabaloetxeko frontoiraino. Txokolatada.

Abenduak 26, eguaztena

–18:00 Munduari bira (ia 80) trukotan magia ikuskizuna, Imanol Ituño magoaren eskutik. Larrondoko zentro zibikoan.

Abenduak 27, eguena

–18:00 Musika galduaren bila antzezla, Eneko Etxebarrietaren eskutik. Zabaloetxeko Kultur Etxeko gimnasioan.

Abenduak 28, barikua

–10:30 (Zabaloetxe) eta 10:45 (Larrondo) Umeen Gabonetako Parkera irteera. Izena ematea: abenduaren 26ra arte, liburutegian.

Abenduak 31, astelehena

–06:30 Gorbeiera igoera. Herriko plaza. Izena ematea: abenduaren 27ra arte udaletxean eta www.loiu.eus webgunean.

Libre dagoen txoriak fasil egiten du barre

txori tokia



TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA



Hator, hator mutil etxera
gaztaina ximelak jatera,
Gabon gaua ospatuzeko
aitaren eta amaren ondoan.
Ikusiko duk aita barrezka
amaren poz ta atseginez,

Eragiok, mutil, aurreko danbolin horri.
Gaztainak erre artean,
gaztainak erre artean,
txipli txapla, pum!

Gabon gaua pozik igaro daigun.

**ZORIONAK ETA URTE BERRI ONI
GABONETAN ERE, EGIZU EUSKERAZI!**

Sondika

Abenduak 21, barikua

–17:00-22:00 Ongi etorri Gabonak, Gaztetxean.

Abenduak 23, domeka

–17:00-21:00 Burko ameslariak, Gaztetxean.

Abenduak 24, astelehena

–11:00-14:00 Olentzerori gutuna, Ludoteka I-n.

–11:00-14:00 Gabonetako bolak egiteko tailerra, Ludoteka II-n.

–17:00 Olentzero eta Mari Domingi, eta jaiotza biziduna. Kalejira udaletxetik. Udalak antolatua, hauen laguntzarekin: Gorantzaileak dantza taldea, Txuma Olague abesbatza, Txuma Olague abesbatza elkar-tea, Ipar Elaiak txistu taldea, Alzora euskara elkartea eta Katekisten taldea.

Abenduak 26, eguaztena

–09:00 Gasteizko Izotz Jauregiara irteera. Ludoteka II-k antolatua. Prezioa: 12 euro, erroldatuentzat; 29 euro, ez erroldatuentzat.

–11:00-14:00 *El origen de los guardianes* filma, Ludoteka I-n.

–11:00-14:00 Joko askea, Ludoteka II-n.

–17:00-21:00 Boloban gaziak, Gaztetxean.

Abenduak 27, eguena

–10:00 Izenaduba basora irteera. Ludoteka I-k antolatua. Prezioa: 12 euro, erroldatuentzat; 23 euro, ez erroldatuentzat.



–11:00-14:00 Joko askea, Ludoteka I-n.

–11:00-14:00 Futbolin txapelketa, Ludoteka II-n.

Abenduak 28, barikua

–11:00-14:00 Gabonetako *Photocall*-a, Ludoteka I-n.

–11:00-14:00 Kaleko jokoak, Ludoteka II-n.

–17:00-22:00 Txantxa tailerra, Gaztetxean.

Abenduak 29, zapatua

–12:00-14:00 eta 17:00-20:30 Txikien Eguena, Gorondaganeko kiroldegian: txikigunea, gaztegunea, tailerrak, puzgarriak, bideo-jokoak...

Abenduak 30, domeka

–12:00-14:00 eta 17:00-20:30 Txikien Eguena, Gorondaganeko kiroldegian: txikigunea, gaztegunea, tailerrak, puzgarriak, bideo-jokoak...

–17:00-21:00 Tailerra, Gaztetxean: Gabon Zaharrerako presta zaitetz.

Abenduak 31, astelehena

–11:00-14:00 Disko txiki eta kanpaiak, Ludoteka I-n.

–11:00-14:00 Urteberrirako desira tailerra, Ludoteka II-n.

Urtarrilak 2, eguaztena

–10:00 Bizkaia Park Abenturara irteera. Ludoteka II-k antolatua. Prezioa: 12 euro, erroldatuentzat; 25 euro, ez erroldatuentzat.

–11:00-14:00 Esku-erregeak, Ludoteka I-n.

–11:00-14:00 Joko askea, Ludoteka II-n.

–17:00-21:00 Tartaleta gozoak, Gaztetxean.

Urtarrilak 3, eguena

–11:00-14:00 Joko askea, Ludoteka I-n.

–11:00-14:00 *Gabonetako istorio bat* filma, Ludoteka II-n.

Urtarrilak 4, barikua

–10:30 Umeen Gabonetako Parkera irteera (BEC), Gaztetxeak antolatua. Prezioa: 12 euro, erroldatuentzat; 24 euro, ez erroldatuentzat.

–11:00-14:00 Errege-oturuntza, Ludoteka I-n.

–11:00-14:00 Ping-pong txapelketa, Ludoteka II-n.

–20:00-22:00 Dj festa, Gaztetxean.

Urtarrilak 5, zapatua

–17:00-22:00 Silme tailerra.

Urtarrilaren 30era arte

–Gabonetako postalen erakusketa, liburutegian.

Lezama

Abenduaren 24tik urtarrilaren 4ra arte

–09:00-14:00 Gabonetako txokoa, eskolatan.

Abenduak 24, astelehena

–17:00 Olentzero eta Mari Domingi, plaza. Musika, Ekidazu abesbatzaren emanaldia, dantzak, kalejira, gaztaina erreak, gozokiak, opariak... Udalak hauen laguntzarekin antolatua: Zorritzetan euskara elkartea, Kurutze dantza taldea, Ekidazi abesbatza eta trikitilarien taldea.

guntzarekin antolatua: Zorritzetan euskara elkartea, Kurutze dantza taldea, Ekidazi abesbatza eta trikitilarien taldea.

Abenduak 28, barikua

–19:00 Mikel Urdangarinen kontzertua, elizan.

Abenduak 29, zapatua

–Txorierriko XXXIII. Gabon kanten jaialdiaren amaiera.

Urtarrilak 3 eta 4, eguena eta barikua

–11:30-13:30 eta 16:30-20:30 Umeen Gabonetako Parkea, frontoian.

SUGOI TABERNA
Byron

smile

628 77 30 17
Goiko kalea, 2 behe
Derio (BIZKAIA)

WiFi

Larrabetzu

Abenduak 23, domeka

–15:00 Olentzeroren bila, plazan. Hori Baik antolatua.

Abenduak 24, astelehena

–18:00 Olentzero eguna, zerran. Hori Baik antolatua.

Abenduak 25, martitzena

–19:00 Bertso saioa. Hori Baik antolatua.
–21:30 Dj Reimy. Hori Baik antolatua.

Abenduak 28, barikua

–20:00 Kontzertua: Liher. Hori Baik antolatua.

Abenduak 31, astelehena

–12:00 "Uriari buelta" lasterketa, plazan.
–Kotilioia: *Fuck MTV* gala. Hori Baik antolatua.

Urtarrilak 2, eguaztena

–16:00 Puzgarriak, frontoian.

Urtarrilak 3, eguna

–17:30 Antzerkia: *Tabernaria* (Mikel Martinez). Hori Baik antolatua.

Urtarrilak 4, barikua

–18:00 Eskola herrikoia: Begirada bat Kurdistanera. Hori Baik antolatua.

Urtarrilak 5, zapatua

–09:30 Auzoz auzo, plazan. Hori Baik antolatua.
–18:30 Nagusientzako txokolatada, Gure Etxean.

Urtarrilak 6, domeka

–18:00 Umeentzako pelikula + txokolatada: *Karramarroaren uhartea*. Hori Baik antolatua.

Urtarrilak 11, barikua

–Kontzertuak: Eskean Kristo eta Nevadah. Hori Baik antolatua.



Tabernaria antzezlan. a: Loraldia, David Herranz.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13

SARRERAK AURRETIK EROSTEKO: TXARTELDEGIAN Edozein ekintza hasi baino ordu bat lehenago

2D: 6 €

2D: 4 €

*inlestar: produktorearen baimenaren arabera programazioak aldatuak izan daitezke

MIAMOR PERDIDO
AG (2D)
Urtarrilak 13, 17:00

EL REGRESO DE MARY POPPINS
AG (2D)
Urtarrilak 20, 17:00

SOBRE RUEDAS
EG-8 108' (2D)
Urtarrilak 20, 19:30

RALPH ROMPE INTERNET
AG (2D)
Urtarrilak 27, 17:00

TIEMPO DESPUES
EG-7 99' (2D)
Urtarrilak 27, 19:30





ETA OTSAILEAN...

ASTERIX: EL SECRETO DE LA POCION MAGICA EL GRAN BAÑO





Txorierritarak be, hizku

Txorierrin, 2.492 lagunek –1.636 *ahobizi* eta 856 *belarri-prest*– hartu dabe parte Euskaraldian. Egitasmoak hizkuntza ohituretan eragitea eduki dau helburu, eta azaroaren 23tik abenduaren 3ra arte egin da Euskal Herriko hainbat herritan. Gure eskualdeko arduradunen esanetan, Euskaraldia Txorierrin uste dan baino euskaldunagoa dala ikusteko izan da baliagarria.



Esperientziak

Naiara Gonzalez sondikoztarrek *belarriprest* txapea eroan dau aldean 11 egunean. Euskeraz aritzeko erronkeari gogoz heldu deutso, lotsa kendu eta herritar batzuk hizkuntza ohiturak aldatzeko baliagarria zala pentsatzen eban eta. Aitortu deuskun moduan, Euskaraldiak bere inguruan ez dau euki oso eragin handirik. "Gehienok *belarriprestak* izan gara. Halanda be, euskeraz egin dot euskeraz egin deuten guztiakaz. Ganera, Euskaraldia 11 egunetik baino haratago doa, eta hemendik aurrera be banago euskeraz egiten saiatzeko prest".

Aitor Santxo larrabetzuarra euskeraz bizi da, etxean, herrian zein lanean; horregatik ez dau alde handirik nabaritu Euskaraldiak iraun dauen 11 egune-

tan. Bera *ahobizia* izan da. "Lana dala eta, hainbat herritatik nabil eta txapadunak ikusi dodaz: pozgarria da. Parte-hartzea egon da, baina ez dakit zein puntutara arte izan dan; adibidez, Balmasedan zelangoragino eragina euki dauen. Hori ardura-



ntza ohiturak aldatzen

Ariketa sozial honetan ibili diranek 11 egunean euskeraz berba egitera jolastu dabe. Batzuk *ahobiz*iak izan dira; besteak, *belarriprest*ak. Bakoitzak identifikatzeko txapea eroan dau aldean, nor dan nor jakin ahal izateko. *Ahobiz*iek ulertzen daben guztiei egin deuse euskeraz, eta ezezagunei be euskeraz esan deuse lehen berbea. *Belarriprest*ak, bestalde, gitxienez euskera ulertzen daben kideak izan dira, gainerakoei euskaraz aritzeko gonbidapena egin deuseenak.

"Eragin nabarmena izan dau Txorierriko herritarren artean: euskerearen alde egotetik euskeraz aritzera egin dabe salto", esan dau Aingeru Landa Euskaraldiaren Txorierriko arduradunak. Azaldu dauen moduan, ariketa sozial honen helburua ez da bakarrik izan hizkuntza ohiturak aldatzea; ohituren inguruko gogoetia eragitea be eduki dau helburu. "Euskaraldia ez da izan aurtengo ekimen bat, amaitutzat emon behar doguna; lan ildoan baino. Urratsak emon doguz gizarte-aldaketea eragiteko, eta orain *ahobiz*i eta *belarriprest* roletan sakontzen eta horreek zabaltzen jarraitu behar dogu".

Inertziak astintzeko saiakuntzea izan da Euskaraldia. Horrela, bada, parte-har-

dunek esan beharko leukie, edota euskeraz egiteko biderik ez dabeneke, ea Euskaraldiak bide hori erraztu deuse. Euskal Herrian, 220.000 persona ibili dira ariketa sozialean. "Gitxi ez da, baina oso gauza zabala be ez da. Akabuan, euskaldunon ingurua, zorionerako edo txarrerako, txikia da. Orain apur bat gehiago zabaldu bada, ba, ederto baten. Baina ez dot uste gizarte osora zabaldu dan gauzea izan danik: enterau egin ez diranak be badagoz". Edozelan be, *belarriprest* rola euki dabenen ahalgina onartu dau, eta kritika be egin deuse ekimenari babesa adierazo deuse persona publiko batzuei. "Euskal politikariak Euskaraldian gaztelaniaz egiten ikusi doguz, eta Athleticeko ordezkariak be, hauteskundeak dirala eta ez dirala, gaztelaniaz aritu dira. Era berean, euskerak Teleberrin presentzia handiagoa euki eikean".

"Eragin nabarmena izan dau txorierriarren artean: euskerearen alde egotetik euskeraz aritzera egin dabe salto"

"Urratsak emon doguz gizarte-aldaketea eragiteko, eta ahobizi eta belarriprest roletan sakontzen jarraitu behar dogu"

tzaileengan bultzatutako gogoetaz gain, baliagarria izan da "*ahobiz*iek dabezan zailtasunez ohartzeko, eta *belarriprest* bakotxak egiten dauen ekarpena bistaratzeko. Ulermenak euskerearen erabilerari ekartzen deusazan aukerak ariketan ikusi ahal izan dirala azaldu da, eta (euskaldunon) ikusgaitasuna Euskaraldiaren elementu garrantzitsuetako bat izan dala nabarmendu".

Loiun, 221 lagunek eman dabe izena Euskaraldian: 133 *ahobiz*i eta 78 *belarriprest*; Sondikan, 566 pertsonak: 309 *ahobiz*i eta 257 *belarriprest*; Derion, 490 herritarrek: 298 *ahobiz*i eta 192 *belarriprest*; Zamudion, 387 lagunek: 237 *ahobiz*i eta 150 *belarriprest*; Lezaman, 319 herritarrek: 243 *ahobiz*i eta 76 *belarriprest*; eta Larrabetzun, 519 pertsonak: 416 *ahobiz*i eta 103 *belarriprest*. "Txorierri, oso kupuru ona lortu dugu eta harro gaude. Gure eskualdean gero eta jende gehiagok ulertzen dau euskera: 10 lagunetik ia zazpi ulertzen dau, eta 16 urtetik beherako ia guztiek. Hori asko dala jakin behar dogu, eta horretaz be harro sentidu, Txorierri euskalduntzen lan egiten daben alkarreen, udalen eta herritarren ondorioa da eta".

Erronka beteta

Halanda be, Landaren berbetan, kopurua ez da izan erronka bakarra. "Euskaral-

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Nerea Pedrosa Cols. 517
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 889 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15



hotel
jatetxea
aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefona: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" N

www.gaminiz.com

*“Txorierrin gero
eta jende gehiagok
ulertzen dau euskerea:
10 lagunetik ia zazpik,
eta 16 urtetik
beherako ia guztiek”*

dia Txorierrin uste dan baino euskaldunagoa dala adierazoteko izan da baliagarria. Herriarrek euskeraz gehiago egin leikiela jabetu dira, eta askok esan deuskue horri helduko deuskiela. Gure benetako erronkea horixe izan da, eta lortu dogula esan behar dogu harro”.

Txorierritarrek ekimenen eduki daben inplikazioa be pozik egoteko modukoa da. Herri guztietan batzordeak eratu eta “hamaikakoa” aurkeztu da. Horrezaz gainera, hainbat ekintza antolatu dira Euskaraldia zabaltzeko, hala nola ikuskizunak, kontzertuak eta tailerrak. “Batzordeak eratzek honeek ekarri dauz: euskaltzaleak identifikatu eta alkarregaz harremanetan jartzea, eta sare bat sortzea. Herri batzuetan, ganera, udal, euskara alkarte eta herriarren arteko hartu-emona bizibarritu da, eta beste herri batzuetan aurrera egiteko gogoia bizitu da. Batzordeek egindako lan bikaina zoriontzeko modukoa da; 2.496 izen-emotea lortzea ez da makala izan”.

Euskaraldia beste herri batzuetan aurretik izandako esperientziatik jaio da, “hizkuntza ohiturak aldatzen dirala frogatuta dagoalako. 2019ko udan inkestak jaso eta irakurri ostean jakin ahal izango da ekimenak izan dauen eragina, bai iraun dauen 11 egunean, bai hurrengo hilabeteetan”. Izan be, Amets Arzalluz bertsolariaren berbak orri honeetara ekarrita, “Euskaraldiak bere hamabigarren egunean hartuko du zentzua eta indarra”.



Euskaraz gozatu genduan

Euskaraldiagaz batera Euskarearen Eguna ospatu dogu aurten. Hitzordua Sondikan euki dogu; eta bertan, euskaraz ondo pasatzeko hainbat aukera. Zirika Zirkus taldeak, Imanol Ituño magoak eta Kantu Kolore taldeak umeak gozarazo eutsen, eta Zuriñe Hildagok (Hesian) eta Iker Villak (Revolta Permanent) musika munduan izan daben esperientzia partekatu eben gazteakaz. Uxue Alberdi, Miren Amuriza, Malen Amenabar eta Ane Labaka bertsolariak *Hau ez da kasualitatea* bertso saio musikatuak eskaini eben, eta arratsaldean Taberna Ibiltariaren eskutik bihurtu zan gau. Lorca eta Lauaxeta olerkariaren obran oinarritutako *Ele!* kontzertuak amaiera ezin hobea emon eutsan Euskarearen Egunaren haritik antolatutako ekitaldiei.

RADIO TAXI FEMADE *Zure taxi, Teorierikoa*

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

24 94 480 09 09

ERRESERBAK:

www.taxisaeropuertoblbao.com

DESKARGATU APP-A

TAXI FEMADE

ZAMUDIO

Loteria Nazionalea

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

LARRABETZUKO ESKOLA FEMINISTA

①
URTARRILAK 17 / Irantzu Varela
DE PRIMERO: FEMINISMO

②
URTARRILAK 23 / Pilar Álvarez
AUTODEFENTSA FEMINISTA

③
URTARRILAK 31 / La Santa Marika
GIZONA EZ DA JAIOTZEN

④
OTSAILAK 7 / Arrazializatutako
Feminista Taldea
EMAKUME GUZTIAK ALA INOR EZ

⑤
OTSAILAK 14 / Josebe Iturrioz
GENEROTIK ATERA DAITEKE

⑥
OTSAILAK 21 / Aiala Elorrieta
ONURA BATZUENTZAT SOILIK?

⑦
OTSAILAK 28 / Nagore Iturrioz
PAREKIDETASUNA ETA HEZKUNTZA

⑧
MARTXOAK 7 / Kattalin Miner
KONTAKIZUNA FEMINISTA
IZANGO DA

Formatzailea:



**OSTEGUNETAN
ANDRA ETA GIZONENTZAT**

(Autodefentsa tailerra ezik)

18:00-20:00 / ANGULERIN / DOAN

Apuntatu zaitez nahi dituzun
ikastaroetara **Urtarrilaren 7** arte,
Angulerin edo hurrengo bideak erabiliz:

zutuniktaldefeminista@gmail.com

[zutuniktaldefeminista](#)

[@ZutunikFeminist](#)



**"feminismoa
denon kontua da"**



20 urte, gaztetxoan artean txirrindularitza bultzatzen

t: Itxaso Marina Ondarroa / a: G.P.

GELA PEDAGOGIKOA

"Euskadi Fundazioa bideratzea lortu eta egin nuen hurrengoa Gela sortzea izan zen, heziketa behar zela ikusi nuen eta", azaldu digu. Hamarkada bi hauetan, Bizkaiko 12.000 ume baino gehiago pasatu dira Gela Pedagogikoak Derion dituen instalazioetatik. Egitasmoa zazpi urtetik 14 urtera bitarteko neskatoentzat eta mutikoentzat da. Alde batetik, bide-hezkuntzari buruzko saioa eskaintzen zaie ikasle-txeetako ikasleei; eta bestetik, 40 gaztetxo inguruk osatutako talde bat dago ikasturtean. "Bide-hezkuntzari lotutako eskola jasotzeaz gainera, barikuetan eta ordu eta erdian, monitoreekin irteten dira atonduta dugun ibilbide batera. Nola ibili behar duten eta nolako ekipajea eraman behar duten azaltzen zaie. Orain, negua datorrelarik, atsedenaldia hartuko dugu hile bian,

*12.000 ume baino
gehiago pasatu dira
Gela Pedagogikoak
Derion dituen
instalazioetatik*

"Ikasi, bizikletaz gozatuz" lelopean, eta Migel Madariagak eta Euskadi Fundazioak bultzatuta, Gela Pedagogikoak 20 urte daramatza gaztetxoak txirrindularitzan hezten. Egitasmoaren nondik norakoak eta haren arrakastaren ga-koak hizpide izan ditugu Madariagarekin.

baina, gurasoak ados badaude, pentsatu dugu beste ekintza batzuk egitea, hala nola nutrizio eskolak eta heziketa fisikoa. Era berean, gustatuko litzaiguke Igor Antonek hitzaldia eskaintzea –proposamena egin diogu eta baietz erantzun du– eta kirol psikologo batekin aritzea. Eta, noski, bide-hezkuntza eskolarekin jarraituko genuke". Monitore bi, harreragile bat eta mekanikari bat dabilta Madariagarekin lanean; berariazko eskolak emateko, nutrizionista bat, prestatzaile fisiko bat eta psikologo bat kontratatu dituzte.

Bere esanetan, egitasmoa martxan ipini zutenetik gora baino ez du egin, eta harro baino harroago dago lortutako emaitzekin eta arrakastarekin. Hala ere, erakundeek hasieran adierazitako babesak eta laguntza gaur egun ez dietela ematen eta kexu da. "Pertsona inportanteak etorri dira Gela ikustera, baina gero ahaztu

egiten dute. Ez diete garrantzirik ematen umeak hezteari eta oinarritzko ezagutzak izateari. Lan gogorra dugu aurretik: aurrezki txikiak ditugun arren, babesle bila ibili beharko dugu".

Oztopoak oztopo, Madariagak lanean jarraitzeko gogo handia du. "Izan ere, orain arte egindakoak emaitza ona izan du, eta leku askoan estimatzen dute. Nire ustez, zerbait handia egin daiteke neska-toak eta mutikoak txirrindularitzan hezteko, baina laguntza behar dugu. Laguntza horrek, gainera, sendoa eta segurua izan behar du, eta erakundeek ere benetako interesa erakutsi behar dute. Egitasmoen balioa eman behar diegu". Adibide moduan Durangoko taldea ipini du. "Gogor egin dute lan neskek beraien taldea edukitzeko, eta errepideko talde zoragarria dute. Baina, zoritzarrez, ez dakite taldearekin azkenean zer gertatuko den, lagun-

Peñasko
arraindegia



Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

RPM
MAYORISTAS INFORMÁTICOS

ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

RUBÉN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA



Lehendakari Lizarola plaza, 5
48170 Zamudio
94 452 14 49

TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA



Torrelarragoiti Ind., 8 - 218 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

OAKLAND
ENGLISH

LEHENDAKARI LEIZAOLA PLAZA, 2
ZAMUDIO
946522857

PATXI
KOOP



PATXI KOOPERATIBA ELKARTEA
Bendakari plaza, 4 48170 Zamudio (Bizkaia) Tel: 944 527 587 info@patxi.coop www.patxi.coop



tza nahikorik ez dutelako. Ez da ulertzen lagundu behar zaigula. Pena da eta hobera ez doa”.

Txorierrira zabaltzea

Etorkizunari begira Gelak duen erronka handienetarikoa bat, beraz, lanean jarraitzea da. Halaber, Madariagari egitasmoa Txorierrira osora zabaltzea gustatuko litzaioke. “Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak utzitako lokal batean gaude Derioko Seminarioan. Hasieratik adierazi digute jarrera ona, eta bidezkoa da txorierritarrek ere gure lanaren onuradunak izatea”. Horri lotuta, aipatu beharra dago aurten, Gela Pedagogikoaren eta Zorribike Lezamako txirrindularitza taldearen arteko hitzarmenari esker, Zorribike-Gela Pedagogikoa BTT taldea sortu dela. Egitasmoa 14 urtetik 18 urtera bitarteko txirrindulariei dago zabalik, eta, besteak bes-



te, helburu hauek ditu: gazteek mendiko txirrindularitza aritzeko aukera izatea, trebatu daitezela eta ondo pasa dezatela. “Zorioneko gaude, gainera, bertako mutil bat, Urko Dañobeitia, kadete mailan Bizkaiko txapeladuna delako. Bestetik, ahaleginetan gabiltza ea nesken BTT taldea osa daitekeen. Mendiko txirrindularitza askoren gustukoa den kirola da, errepidean baino arrisku gutxiago daudelako. Eta hori da hain zuzen ere nabarmendu behar dugun ezaugarria. Gero, helduak eta beren ekintzen erantzuleak direnean, errepideara atera nahi badute, ba, oso ondo”. Gela

Pedagogikoak Lezamako taldearekin ez ezik Enkarterriko taldearekin ere sinatu du hitzarmena. “Baina hitzarmen horiek ez dute ezertarako balio, gero gaztetxoek aukerarik ez badute; gu aukerak izan ditzaten gabiltza lanean”.

Gela Pedagogikoaren 20. urteurrena azaroaren 17an ospatu zuten. Horretan *Ametsak errealitate bihurtuz* liburua aurkeztu zen. Liburuan Miguel Madariagaren biografia jaso du Yon Suminagak. “Ez nuen espero aurkezpenean hainbeste lagun batzea (256 pertsona); izugarria izan zen”. Horrezaz gainera, omenaldia egin zioten Igor Antoni, eta arratsaldean 200 lagunek hartu zuten parte Bizikletaren jaian. “Eguna betiko izango dut oroipenean. Espero dezagun hura bezalako egun gehiago egotea. Liburuan azaldu den moduan, gogoak eta lanak urrutira eramán gaitzaket”.

GELTOKI
Bar & Cafe

ospatu gurekin!
GABON GAUA
GABON ZAHARRA

Errementeiri, 8
48150 SONDIKA
944 532 592
652 732 584

HORTZ-KLINIKA
IDOIA ZUBIETA

Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Aretitza doktorea, 11.-1. edk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Urte Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

Ale-ahaindegia

M^a Antonia Llodio

Txorierriko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

KILZA
ELEKTRIZITATEA
ARGIZTAPENA

Larrabari ibilbidea 1, behea
48160 DERIO
669 51 63 11 / 94 474 46 29
bilzaelectricidad@gmail.com

Genoman dago koska

Honezkero entzungo zenuten Txinan, CRISPR/Cas9⁽¹⁾ erabilia, genetikoki eraldatutako haur bi jaio direla⁽²⁾. Artikulu hau idatzi orduko hori egiaztatu barik egon arren, teknologia horien etikaren inguruko eztabaidak piztu dira berriz, kasu konkretu hau benetakoa izan zein ez, jada horrelakoak (eta gehiago) egiteko gai baikara.

t: Xabier Díaz / a: www.verdict.co.uk

Hamaika ikusteko jaioak garenez, ezin dugu beste alde batera begiratu, eta Zientzia eta Teknologian dabilzan emakumezkoek eta gizonezkoek ere ezin gaituzte alboratu. Denon erantzukizuna da. Eta horregatik nator berriro ere gai hauetan sakondu eta izpiritu kritikoa errebindikatzera.

Agertu diren kezketako batzuk orain dela urte eta erdi idatzitako artikulu batean⁽³⁾ azaldu genituen: edizio genetiko "merkea" eta "erraza". Eztabaida jendaurrea agertzea denbora-kontua zen.

Esan dutenaren arabera, ahizpa jaioberrien genoma aldatu dute, HIESaz eta beste gaixotasun biriko batzuek kutsatu ez daitezen. Geneetan gure proteina guztien inguruko informazioa dago, eta birus horiek globulu zurien azalean dagoen gene konkretu batera lotzen dira, euren material genetikoa horren barrura sartzeko, ugaltzeko eta globulu zuria hiltzeko. Ahizpa txinatarrei proteinaren informazioa duen genea kendu diete, birusak zelula barruan sartu ahal ez izateko. Are gehiago, zelula guztien genoma aldatuta dagoenez, aldaketa genetikoa haiek ez ezik beren ondorengoek ere edukiko lukete, eta horrek, noski, eztabaida etikoa sortu du. Helburua gaixotasun genetikoa osatzea denean, gehienok horren alde egingo dugu ziur aski. Baina horretara

bakarrik mugatuko ote gara? Birika eraginkorrakoak egingo ditugu? Bihotz eraginkorrakoak? Burmuin eraginkorrakoak? Gogoan izan *Gattaca* pelikula⁽⁴⁾. Eta, aldi beran, ganoraz jokatzuz gero, zergatik ez?

Zalantzak

Bestalde, etorkizun oparoa duten arren, CRISPR hainbat teknika ikerketa-fasean daude oraindik, eta azaro batzuk an-

tzeman dira, esate baterako, zorroztasuna. Txinako ahizpei dagokienez, ziur gaude gene konkretu batzuk bakarrik kendu dituztela? Beste gene batzuk ere ukituko zituzten? Horrela balitz, ez dakigu ondorioak zeintzuk izan liratekeen; txarrak, ia seguru. Ahizpei jarraipena egingo dietela esan dute. Zer? Prest gaude jaio berriak akurizat erabil ditzatela onartzeko?

Zientzia eta Teknologia ezinbesteko tresnak dira gizartearen aurrerapenerako, eta artikulu honetan azaldutako ikerketa bat egiten denean gutxi daukagu irabazteko eta asko galtzeko. Etika kontuan hartzen ez duten ikerketek edo garapenek emaitza ez ezik egiteko modua ere ipintzen dute zalantzan. CRISPR tresna eraginkorra izango da hainbat gaixotasun osatu edo ekiditeko, izurriak kontrolatzeko edo txerto eraginkorrak lortzeko. Baina betiere, eta kasu gehienetan gertatzen den moduan, maila etikoari eusten badiogu.



1. CRISPR, wikipedia, <https://eu.wikipedia.org/wiki/CRISPR>
2. Genetikoki eraldatutako bi haur jaio direla zabaldu dute Txinan, Jokin Sagarzazu, 2018-11-27, berria.eus <https://goo.gl/PnTyPN>
3. CRISPR, bioteknologia edonoren eskura, Xabier Díaz Silvestre, 2017-05-23, aikor, <https://goo.gl/B5qMsk>
4. <https://eu.wikipedia.org/wiki/Gattaca>

luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (lonja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO

EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI

Gorbea kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Tlf. / Faxa:
94 452 29 10

Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra

Espezializatea:
Xafla-lanak
Zoruak

644522910 - 665703312 - 652772016

Gabon zaharretan: “azkenak atea itxi”; eskolan: azkenekoari eskerrik asko

t: Juan Luis Goikoetxea

Postmodernitateko zibilizazioak las-ter eta *faster* bizitzera kondenuatu gaitu; iPhonek urtero belaunaldi berria sortzen

digu; makina errobotizatuen musikara dantzatzeko dugu. Lekutan geratu dira dili-jentzia-karroak eta idi-uztarriak! Pikutara, txoritara, joana da presentea bakarrik da-kienarekin etorkizunaz mintzatzea, eta zer



esanik ez eternitateaz berba egitea. *Carpe diem* esloganak dakarren estrespean bizi garenez –ahal den guztia eta guztiaz egois-moz gozatuz, eta auzolana zokoratuz–, ba-dirudi pazientzia barik bizi garela, partidua amaitu baino lehen saria eskatuz. Baina txapela esku-pilotako partiduen bukae-ran ematen da, edo eskolako kalifikazioak kurtso amaieran. Begira, bestela, suspen-tsoz beteriko Patxo Boraskaren semeari. Eskolan azkena den arren, aita harro-harro agertzen da semearen alde. San Martineta-ko herri-bazkarian esan dio Miren erizaina-ri:

–Zure semea, Miren, gure Martintxori esker dabil ondo eskolan.

–Zer dinok, Patxo? Hire mutila klasean azkenekoa dok-eta!

–Horrexegaitik, ba, Miren! Nire semea azkenekoa ez balitz, zeurea izango litzateke akabukoa; neure semeari esker ez da zurea ikasgelako txarrena.

Gabon zahar ere, urteko azken eguna da, zorionen eta zoritxarren helmuga. Gure etxeetan, “azkenak atea itxi” esaten da. Ga-bon zaharrak ere urtea zarratzen du, baina ate bat ixten denean, beste bat zabaltzen da –dio atsotitzak–. Horri esker, irekitzen den ate berriaren aurrean kantatuko da 2019an: “Aterik ate ohitura zaharra aurten berritzeko asmoz”. Horrela zaharra berrituz.

BC Fun Fitness GYM
EKIPAMENDU BERRIA



Segimendu personalizatua

Zamudio (IAT ondoan)
Prezio bereziak, talde eta enpresentzat
Jarraitu

   

Ugaldeguren II industrialdea, partzela 9, nabe 3
628836753 - 944520815 gymborierri@gmail.com

RPS: 184/10



OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

GORBEIA MERTZERIA



Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75



Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea



Carrefour
express

ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Etxeko sukaldaritza

t: Maite Lekerika

Azenario eta leka biribil-pastela,
roquefort saltsagaz

a: hogarmania.com

Osagaiak (zortzi lagunentzat):

- 600 g azenario
- 500 g leka
- 5 arrautza
- 250 ml esne-gain
- Gurina
- Urina
- Piperbeltz baltza
- Gatza

Saltsea egiteko:

- 50 g roquefort gaztai
- 250 ml esne-gain
- Koilarakada bi ardao zuria eta perrexil apur bat.

**Prestetako errea:**

Lekei puntak kenduko deutseguz, eta uretan egosiko doguz 10 minutuan gatz apur bategaz. Sikatuko doguz. Azenarioak

garbitu eta txikitu, eta horreek be egosiko doguz. Azenarioak sikatu ostean, irabiatuko doguz eta arrautzak eta esne-gaina botako deutseguz. Irabiatuko dogu eta, beharrezkoa bada, gatza botako dogu.

Molde luzanga bat hartu, eta gurinaz igurtziko dogu. Uruneztatu be egingo dogu. Leka batzuk ipiniko doguz luzetara eta hareen gainean saltsa apur bat botako dogu. Saltsearen gainean leka batzuk ipiniko doguz; eta horreen gainean, saltsa apur bat. Holan egingo dogu, harik eta leka guztiak ipini eta saltsa osoa botatzen dogun arte. Labea berotu eta bertan sartuko dogu. Maria bainuan, eta 170 graduan, holan eukiko dogu 45 minutu inguru. Pastela hoztuten danean aterako dogu moldetik. Saltsea egiteko: esne-gaina, gaztaia eta ardao zuria egosiko dogu, su eztian, 10 minutu inguru. Mahaira epel edo bero aterako dogu eta perrexilaz apainduko dogu.

Zapo-
bolatxoak

a: cuinaamlamestressa.blogspot.com

Osagaiak (4 lagunentzat):

- Kilo bat zapo eta kilo erdi otarrainxka
- Kipula bat
- Arrautza bat
- Urina
- Ogi birrindua
- Gatza eta perrexil apur bat
- Azafrai edo koloratzaile apur bat
- Oliba orioa
- Kopa bat ardao zuri

Prestetako errea:

Zapoa garbituko dogu, eta burua, azala eta hazurra egosiko doguz uretan gatzagaz. Solomoak gordeko doguz. Otarrainxkak zurituko doguz eta buztanak gordeko doguz. Buruak eta azalak egosiko doguz zapoaren hazurmasurraz batera. Saldea gordeko

dogu. Zapoaren solomoak eta otarrainxken buztanak txikituko doguz, eta kipula erdia be oso fin ebagiko dogu. Gatza botako dogu. Arrautza irabiatuta gehituko dogu, baita koilarakada bi ogi birrindua be. Osagaiak ondo nahastuko doguz eta bolatxoak egingo doguz. Bolatxoak uruneztatu eta prejiduko doguz.

Bolatxoak prejidu doguzan orio apur bat erabilita, beste kipula erdia (oso fin ebagita) erregosiko doguz. Eginda dagoanean ardao zuria gehituko dogu, eta apur baten irakiten utziko dogu. Arrain-saldea gehituko dogu (300 ml inguru), koloratzaile apur bat be botako dogu eta, beharrezkoa bada, gatza botako dogu. Bolatxoak saltsean sartuko doguz eta bost minutuan edukiko doguz egozten. Mahaia ateratzeko, perrexilaz apaindu daiegu.

Laranja-budina

Osagaiak (6 lagunentzat):

- Bost arrautza
- 150 g azukre
- 500 ml laranja-zuku
- Ura eta azukre apur bat (karamelua egiteko)

Prestetako errea:

Azukrea karamelizatu, eta budi-nak egiteko molde batean zabalduko dogu. Arrautzak irabiatuko doguz, eta azukrea gehituko deutsegu. Barriri irabiatuko dogu. Laranja-zukua gehituko dogu, ondo irabiatu, eta moldera botako dogu. Aurretik bertutako labara sartuko dogu eta bertan, maria bainuan, 170 graduan edukiko dogu, harik eta egiten dan arte. Laba amatatu, eta budina ordu erdian utziko dogu haren barruan. Hoztuten danean handik aterako dogu. Gustukoa bada, laranja-zuko marmeladeagaz lagunduta atera daiegu mahaira.

a: ABC sevilla





**LARRABETZU
BIZIRIA**

**ETKEAN
GURA DOGUZ
GABONETAN**

**ANDRA MARI KALEA
TEL.: 94 455 84 64**



Aliprox

Ondo para jaietan!

**INES
JANARI-DENDA**

Iturrikoetxea, 3
48195 Larrabetzu
T: 94 455 84 33

Gorbeia, 7 Behea
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 452 21 41
Faxa: 94 452 21 42
www.gestionzamudio.com
gestionzamudio@gestionzamudio.com

**Gestión
Zamudio**

Aholkularitza Fiskala
Jon Vázquez García
AKTUARIO-EKONOMILARIA

FOTERI TABERNA



Andra Mari Kalea, 22
Teléfono 455 80 98

48195 LARRABETZU-Bizkaia

ikastegi homologatua

**LARRABETZU
MUSIKA ESKOLA**

**ZORIONAK ETA
URTE BERRI ON!**



Errebale, 7 behea
94 455 70 66



ETORKI TABERNA

*Eguneroko menua
Asteburuetan menu bereziak*

Andra Mari Kalea, 1
Telf.: 94 455 81 95

48195 LARRABETZU
(Bizkaia)

Urte
zoriontsu
eta
euskalduna
opa dizue



arre kikili

Larrabetzuko euskara elkarteak

IRUSTA TABERNA

**EGUNEROKO MENUAK
GAUEZ / MUSIKA ETA PARRANDA**

Gabonetan, etxean gura doguz

LARRABETZU
Tel.: 94 455 84 77



Moro's Pub



**LARRABETZUKO
BATZOKIA**

Eguneroko zein asteburuko menuak
Menu bereziak

Askatasunaren enprantza, 3
94 455 72 94

Zorionak eta urte berri on!



LAINOMENDI
DERIO

Lainomendiaren Gabonetako ekitaldia

abenduak 30, 12:00etan
Derio kiroldegian



electricidad derio elektrizitatea
Koadro elektrikoak • Instalazioak • Mantentzea

Proiektuak eta material elektrikoaren salmenta

Aizkorri Kalea, 1 - Telf. / Fax: 94 454 31 48 - 48160 DERIO (Bizkaia)



~~X~~ Korta Plaza, 2 - 4.D
48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 944 54 27 19

Estudios 10 Ikastegia

Pakearen Plaza, 3 - behea
48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 944 54 50 11 ~~X~~



Bisitatu gure bloga

www.blogari.net/tximintx

Zorionak eta Urte Berri On



Liliak
Loradenda

www.liliak.net
facebook: liliak loradenda
amaiarementeria@euskalnet.net

Erdiko Kalea, 2 • DERIO
94 454 12 23

TXORIERRIKO AEK ■ euskaltegia



Zorionak eta urte berri on!

Eutsi euskaraz berba egiteko konpromisoari

aek

Gorbea kalea, 5
48160 Derio
944 543 967
607 59 87 94
txepetxa@aek.eus

ESTANKOA Ana Artiñano Inchausti

Mungialde etorbidea, 12 - 48160 Derio
Tel/Fax: 94 454 15 41
anaarti @euskalnet.net



Umeen txokoa: 14 desberdintasunak

Ezetz 14 desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.
a: es.hellokids.com



Gomendioak



LITERATURA: NAGUSIAK

- Hitzen ahairea* (Susa), Gotzon Barandiaran.
- Malkoak lur antzuan* (Erein), Toti Martinez de Lezea.
- Laranja mekanikoa* (Meetokk). Anthony Burgess.

LITERATURA: GAZTEAK

- Puntuak Puntuak* (Ttarttalo). Herve Tullet.
- Bisera gorria* (Erein). Antton Kazabon.
- Saharako itsasoa* (Elkar). Lur Gallastegi, Aritz Eiguren (Il.).
- Mortina 1. Barrez lehertzeko moduko istorioa* (Mezulari). Barbara Cantini.

Sudokua

		8				6	5	
1	5						3	
6				7		1		3
	8		6		1	9		
9			2	3		7		
	7		3		8			
	1				6			9
3								2

2	8	5	7	6	1	4	9	3
6	7	3	9	5	4	2	1	8
9	1	4	8	2	3	6	7	5
8	9	7	5	3	2	1	4	6
5	2	6	1	4	9	3	8	7
3	4	1	6	7	8	5	2	9
7	3	2	4	8	6	9	5	1
1	6	8	2	9	5	7	3	4
4	5	9	3	1	7	8	6	2

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburuntza:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 beheko
Zamudio
94 4520419

ama
taberna

Leizaola plaza, 7 - beheko (ZAMUDIO)
94 655 93 69

HARATEGIA
ALBERTO

Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

Ane Aretxabaleta

ile-apaindegia
aurretiko hitzordua
solariuma

9 4 4 5 4 3 5 8 0

Gorbea 8, Derio 48160

OPTIKA
moderna

Ikusmena graduatzea
Zenbait motatako betaurrekoak
Lentillak egokitzea

Aizkorri, 1
48160 Derio

f 94 454 37 99
www.opticamoderna.es

IBARRONDO

FISIOTERAPIA
JARRERA-BERREZIKETA
ESKU-TERAPIA

MITXINE, 3
48150 SONDIKA
Tel. 94 453 92 00
Mugikorra 617 674 202
Mugikorra 688 601 871
fisiobarrondo@gmail.com

ZORRIKETA
LEZAMAKO EUSKERA ELKARTEA

**Gabon zoriontsuak
lezamar eta
txorierritar guztioi**

BATAK BESTEAGAZ LEZAMARROK EUSKARAZ
Tel.: 94 455 60 76

**LIBRERIA
SONDIKA
LIBURUDENDA**

ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papergintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 10 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

**TOLDOS
TXORIERRI**
TOLDOS B. GOYOAGA

Lona industrialak
Sareak
Eguzki-ohialak
Alokatzeko lonak

Torrelarragoiti ind, P2
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 12 58
Faxa: 94 452 07 44
Gasolindegia ondoan

Gabonetan be
euskeraz bizi

ZORIONAK

LAGATZU
ZAMUDIOKO
EUSKERA
ELKARTEA
www.lagatzu.org

**zamudion
euskeraz?
hoba ez!**

HARRI-BILBO

HARGINTZA OROKORRA

LEHIO-ERTZEKO HARRIAK - KANTO HARRIAK - BARLASAIK - MAILAK
ARKUAK - TXIMINIAK - HARRI-HORMITUAK - XAFLA-LANAK

HARRORIA: OUNANGON
E-mail: recupresaharribilbo@euskalnet.net

LANTZERIA:
Kurtzea Industrialdea, z/g • 48196 LEZAMA
94 452 10 71

ERAKUSTOKIA:
Itxaropena, 2 • 48100 MUNGIA
94 674 33 40

ALZORA
Sondikako euskara elkarte

ORIONAK
URTE BERRI ON!



BEA ILARDIA

EH Bilduren Bizkaiko ahalzun nagusigaia

Urte berri,
Bizkaia berri.

Bea Ilardia

ehbildu



*Txorierriko Mankomunitateak eta Udalek
zorionak eta urte barri on
opa deutsuez*

TXORIERRIKO MANKOMUNITATEKO UDALAK

DERIO | LARRABETZU | LEZAMA | LOIU | SONDIKA | ZAMUDIO

www.txorierri.eus



TXORIERRIKO
MANKOMUNITATEA